Giza Baliabideen Zerbitzuari dagozkion funtzioak zehaztu dira, bai eta zerbitzuko sekzioak eta bakoitzari dagozkion funtzioak ere.

Funtzioak zabaltzeko baldintza orokorrak adierazi dira eta Sailburuari dagozkion funtzio zabalduak adierazi dira.

Uztailaren 15eko 233/03 FD, otsailaren 9ko 33/04 FD, apirilaren 26ko 182/04 FD eta kontrako xedapen guztiak indargabetu dira.

#### ***1.2.2.1.4. Nafarroako Administrazioaren Idazkaritza Orokor Teknikoen arautzea. 29/2005 FD, otsailaren 21koa (2005eko otsailaren 25eko 25. zk. NAO)***

15/2004 Foru Legeak, abenduaren 31koa eta Foru Erkidegoko Administrazioarena, 23/1983 Legea, apirilaren 1koa, indargabetzen du.

15/2004 Legearen arabera, Idazkaritza Orokor Teknikoak organo horizontalak dira bakoitza bere Sailean. Horietara eramango dute indarrean dagoen antolamenduen arabera Idazkaritza Teknikoei egiten zaizkien erreferentziak.

Idazkaritza Orokorrenak izango dira esparru tekniko eta juridikoko, giza baliabide-etako eta aurrekontuen kudeaketako eskumenak, araudiak ezartzen dituen guztiak.

Idazkaritza Orokor Teknikoak arautzen dituen araudia onartu da. Bertan definitu dira Idazkaritza Orokor Teknikoaren kontzeptua, egitura, dagozkion eskumenak eta Idazkari Teknikoei dagozkien alderdiak.

50/1085 FD, maiatzaren 16koa eta Idazkaritza Teknikoak arautzen dituen, indargabetu da.

#### ***1.2.2.1.5. Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolamenduen eta funtzionamenduen arautzea. 83/2005 FA, apirilaren 26koa (2005eko uztailaren 1eko***

<sup>37</sup> Abenduaren 23ko 10/2002 LO, hezkuntzaren kalitateari buruzkoa (2002ko abenduaren 24ko 307. zk. NAO).

### 78. zk. NAO)

Irakatsi eta ikasteko prozesuen kalitatea da hezkuntza-sistema ororen funtsezko elementua. Elementu hori bermatzeko gizarteko elementu gehiagoren laguntza behar da, bai eta hezkuntzako protagonista zuzenena eta botere publikoena ere. Azken horiei dagokie kalitatea laguntzen duten faktoreei lehentasuna ematea. Espainiako legeetan kalitatearekin erlazioatutako printzipioak aipatzean, hezkuntza-sistemaren eta ebaluazioaren ikuskaritza azpimarratu da beti. Horren ildotik hitz egiten du ELGEko I.k) artikulua<sup>37</sup>.

Legearen arabera, botere publikoei dagokie legeak betetzen direla ziurtatzea eta eskubideak bermatzea, eta hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragileen lana behatzea eta hezkuntza-sistemaren eta irakaskuntza-sistemaren kalitatea hobetzea<sup>38</sup>. ELGEko 105. artikuluan adierazi dira dagozkien funtzioak<sup>39</sup>. Aipatutako artikulua edukia bat dator azaroaren 20ko 9/1995 LOren, ikastetxeen parte-hartze, ebaluazio eta gobernuari buruzkoa<sup>40</sup>, IV. tituluaren 36. artikuluekin -hezkuntza-ikuskaritzari buruzkoa-, eta lege horrek indargabetu zuen LOGSEko 61. artikulua 2. atala, Ikuskaritzaren funtzioak zehazten zituen.

Adierazitako guztia lortzeko, 65/1999 FDK<sup>41</sup>, ikuskaritza-funtzioa arautu zuen; horren bidez ziurtatzen da irakaskuntzaren kalitatea lortzeko behar diren faktoreak behar den bezala eta modu harmoniatsuan funtzionatzen dutela.

Dekretu horrek baimena ematen dio Hezkuntza eta Kultura Sailburuari gauzatze-ko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko. Orain arte ez da baimena erabili. Hori dela eta, FAK aipatutako FDan barne hartutako alderdi orokorrak garatzen eta zehazten ditu; alderdi horiek Ikuskaritza Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren antolamendua eta funtzionamendua orientatzeko eta errazteko dira. Aldi berean, Sailak ezarritako lehentasunak barne hartuko dira eta arauak gomen-datzen dituen aldaketak egingo dira.

Dekretuaren ezarpenaren esperientziak hainbat arazo eta akats azaleratu ditu eta FAN zuzendu nahi dira horiek guztiak. Xede horrekin, inguruko herrialdeetako eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-ikuskaritzaren funtzionamendua aztertu da. FAK pixkanaka eta testuinguruaren arabera aplikatzen ditu antolamendu-mota horrek ekartzen dituen abantailak.

<sup>38</sup> Cit 102. zk.

<sup>39</sup> Cit 105. zk.

<sup>40</sup> Azaroaren 20ko 9/1995 LO, ikastetxeetako parte-hartzeari, ebaluazioari eta gobernuari buruzkoa (1995eko azaroaren 21eko 278. zk. BOE).

<sup>41</sup> Irailaren 13ko 365/1999 FD. Hezkuntza eta Kultura Saileko Hezkuntza Ikuskaritzaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen du eta Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak eskuratzeko eta hornitzeko sistema ezartzen du (1999ko urriaren 1eko 122. zk. NAO).

Bestalde, arauak egonkortasuna ekartzen dio Ikuskaritzaren antolamenduari eta funtzionamenduari. Horrela, FAK Zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko orientazioak barne hartzen ditu, aipatutako FDren esparruan.

Lehenengo tituluan Ikuskaritzaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren printzipioak aztertzen dira, bai eta Ikuskaritzari dagozkion funtzioak ere. Printzipioak honakoak dira: hierarkia, plangintza, talde-lana, espezializazioa, profesionaltasuna eta ebaluazioa. Funtzioak dira: titulartasun publikoko zein pribatuko zentroen kontrola eta ikuskaritza; ebaluazioa; aholkularitza; hezkuntza-administrazioari informazioa ematea; irakaskuntza-funtzioa hobetzea eta laguntzea. Barne hartutako alderdiak, subjektuak eta ekintzak adierazi dira.

Bigarren tituluak Ikuskaritza Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren egitura garatzen du.

Zerbitzua antolatzeke irizpideak adierazi dira. Besteak beste, ikuskaritza-funtzioarekin erlazionatutako eskumen generikoak eta ikuskarien berariazko eskumenak indartzea; etengabeko hobekuntza eta kalitatea, talde-lana, bakuntasuna eta eraginkortasuna. Horrek ematen die garrantzia zerbitzua egituratzeko osatu diren ikuskaritza-zonei.

Zerbitzuan bereiz daitezke: Zerbitzuaren Zuzendaritza, ikuskaritza-zonak, curriculum-arloak eta berariazko arloak.

Zuzendaritzari dagozkio lanaren plangintza egiteko funtzioak. Horretarako, ikuskari koordinatzaile baten laguntza du.

Zonek osatzen dute antolamenduaren eta funtzionamenduaren funtsezko egitura. Lau zona bereizi dira, eta bakoitzak funtzio generikoak, berariazko funtzioak eta zeregina jakin batzuk ditu. Ikuskari bakoitza dagozkion zonara atxikiko da. Zona bakoitzeko ikuskari-taldeak –funtzio jakin batzuk dagozkie– koordinazio-ikuskari bat buru dutela, funtsezkoak dira koordinazioa, parte-hartzea, lankidetzeta eta prestakuntza lortzeko. Zona bakoitzerako lana egiteko urteko plan bat osatu eta jarraituko da.

Curriculum arloak, berriz, ikuskarien lana antolatzeke esparrua dira, izan ere, maila, zentro programa eta zerbitzu desberdinetan lan egiten dute. Curriculum-arlo horien arabera jardungo dute eta Saileko beste unitate batzuekin lan egingo dute ikuskaritza eta ebaluazioa egiteko orduan. FDko 11.2 artikulua arabera adierazi dira arloak eta kontuan hartu da 3. XGaren edukia. Arloei dagozkien funtzioak eta arlo horietara atxikitzeke irizpideak adierazten dira. Arloko ikuskari guztiek talde bat osatzen dute eta ikuskari arduradun bat dute buru.

FDn aurreikusitakoez gain, honako berariazko arlo hauek sortu dira: Kalitatea eta Kudeaketa arloa, Giza Baliabideak, Berariazko hezkuntza-premiak, Kultur aniztasuna eta orientazioa, Lanbide-heziketa, Teknologia berriak, Zentroak, Irakasleen Prestakuntza, Ikasleen ebaluazioa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, Espainiera eta Literatura eta Euskara eta Literatura, erregimen bereziko irakaskuntzak. Bakoitzari



funtzio propioak dagozkie. FDn adierazitako Ebaluazio-arloa, halaber, zati desberdinek osatzen dute: Programen ebaluazioa, Irakasleen ebaluazioa, Nazioarteko ebaluazio-proiektuak eta hezkuntza-adierazleak. Bakoitzari dagozkion funtzioak zehaztu dira, eta FDn, FAn zonekin erlazionatutako berariazko artikuluetan adierazitakoa eta 9. artikuluan, zuzendaritzaren funtzioei buruzkoa eta eranskineko prozesuen matrizeari buruzkoa, adierazitakoa kontuan hartuta.

Hirugarren tituluak ikuskaritzaren funtzionamendua antolatzen du. Honakoak dira zerbitzuaren funtzionamendurako irizpideak; plangintza baten arabera, taldean eta koordinaturik beteko dira funtzioak; zentroen antolamenduaren eta pedagogiaren autonomia; zentroa da dagozkien funtzioak betetzeko eremu naturala; parte-hartzea eta erantzukizunak hartzea sustatzea; ikuskaritza egitean zentroen eta irakasleen informazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea lortzea; jarduerarekin batera prestakuntza eta aholkularitza emango da eta ebaluazio-kultura sustatzera zuzentzen da; etengabeko prestakuntza sustatuko da; funtsezkoa izango da zentroen errealitatea ezagutzea esku-hartze eraginkorra lortzeko, eta jarduerak teknikoak eta ikuskaritza-funtzioaren deontologia propioaren arabera izango dira.

Ikuskaritza-funtzioa garatzeko, ikuskariak jarrera eta ekintza jakin batzuk ezagutu behar ditu aurretik, eta horiek izango dira eguneroko lanaren oinarriak.

Ikuskaritza-bisitak, plangintza, koordinazioa eta eraginkortasuna bezalako printzipioei jarraituz egingo dira eta noizean behinka egingo dira. Bisitak txosten batean adieraziko dira.

Ikuskaritza-txostenak, eredu jakin baten arabera egingo direnak, hezkuntza-zentroetara eta hezkuntza-administrazioa bidaliko dira.

Zerbitzuaren barne-funtzionamenduari dagokionez, irizpide homogeenak jarraituko dira. Ikuskariak zona eta curriculum-arlo, zentro, programa, zerbitzu eta hezkuntza-jarduera, esku-hartzea eta antolatutako zereginetara atxikitzeko berdintasuna, espezializazioa eta karguen bateragarritasunaren printzipioei jarraituko zaie eta kontuan hartuko dira esperientzia, titulazioa eta prestakuntza, arloetarako atxikipena, ikastetxeen tipologia eta titulartasuna, plantillaren antzinasuna, eskola-barrutiekien koherentzia, D ereduko zentroi arreta egokia ematea. Blokeen arabera eta epe mugatu batzuetan egingo da atxikipena, arrazoitutako salbuespenen kasuan izan ezik.

Ikuskaritzak kanpoko profesional adituen, langileen eta zerbitzura atxikitako irakasleen laguntza eska dezake.

Zerbitzuak lau urteko jarduera-plan orokor bat edukiko du, urteko planetan zehaztu eta garatuko dena. Ikuskaritza-planek barruko eta kanpoko ebalua-

---

<sup>42</sup> Cit. 41. zk.

zio-prozesu bat gainditu beharko dute, sistema egoki bat eta adierazle egokiak aukeratu. Ikuskariak prestatzeko urteko plana barne hartuko dute.

Ikuskaritzaren jarduerak prozesu esplizituaren kudeaketa-sistema baten bidez egingo dira. Prozesu-multzo bakoitza ikuskaritza-zonetako arduradunekin dago lotuta.

Indargabetze generikoa egin da.

#### ***1.2.2.1.6. Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren lau urteko jardueraren plan orokorra. 502/05 Ebaz. 05/05/31 (2005eko uztailaren 15eko 84. zk. NAO)***

365/99<sup>42</sup> FDren 9. artikulua garatzen du. Hain zuzen, horren arabera, planean zehazten dira Hezkuntza Ikuskaritzari dagozkion funtzioak, eta urte anitzeko balioa du planak. Era berean, 2005eko apirilaren 26ko 83/2005 FA<sup>43</sup>, Sailak lau urterako Hezkuntza Ikuskapenari ezarritako helburuak lortzeko bitartekotzat jotzen duena plana, garatzen du.

Planean prozesu antolatu batzuk zehazteaz gain, lerro estrategikoak definitzen dira, lehentasunezko esku-hartzeak adierazten dira, erantzukizunak banatzen dira, Zerbitzuaren kideen prestakuntza-prozesuak definitzen dira eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak zehazten dira, beharrezko hobekuntzak egiteko helburuarekin. Plana urteko jardueraren plan orokorrek garatzen dute.

Honakoak dira planaren helburuak:

1. Ikuskaritzak zentro, Hezkuntza Saila eta hezkuntza-erkidego osoari eskaintzen dizkion zerbitzuen plangintza ziurtatzea.
2. Ikuskaritzak kontrolaren eta gainbegiratzearen esparruetan egin beharreko esku-hartzeak zehaztea.
3. Ikuskariek zentroak, irakasleak eta programak ebaluatzeko orduan egin beharreko jarduerak zehaztea.
4. Ikuskaritzak Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza-sistema ebaluatzeko orduan egin beharreko jarduerak zehaztea.
5. Ikastetxei aholkularitza-mailako jarduerak azpimarratzea.
6. Hezkuntza-administrazioaren informazio-jarduerak eta Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuekin lan egiteko esparruak zehaztea.
7. Ikuskaritza Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuan lerro estrategikoak eta esku-hartzeako arlo kritikoak zehaztea.
8. Planaren jarduerak definitzeko, ezartzeko eta hobetzeko erantzukizunak zehaztea.

<sup>43</sup> Ikus 1.1.2.3 epigrafeko 9. zk. kapitulu honetan.

9. Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea, planaren helburuak betetzen laguntzeko.
10. Zerbitzuaren kideen berrikuntza-jarduerak eta ezagutzak hobetzeko jarduerak definitzea, planean barne hartutako zerbitzuak eskaintzerakoan kalitatea eta bikaintasuna lortzeko.
11. Ondorioak lortzea eta proposamenak egitea. Horretarako egin diren jardueren txostenak eta azterlanak erabiliko dira.

Ikuskaritzaren zerbitzuak egingo dituen jarduerak dira. Bakoitza prozesu jakin batean sartzen da eta jarraipena eta kontrola ziurtatzen duten jarduerak gainditzen dituzte. Aipatutako prozesuetan plangintza, zerbitzuaren eskaintza eta kontrola eta hobekuntza barne hartzen dira.

Ondoren adierazi dira plangintza-prozesuak:

1. Zerbitzuen kartera onartzea.
2. Zerbitzu berriak diseinatzea eta garatzea.
3. Zerbitzua eskaintzeko plangintza.
4. Txostenak lantzea eta bisatua.
5. Zentroekin harremana: bisita.
6. Lau urteko plana.
7. Urteko plana.

Bakoitzaren deskribapena egin da.

Honakoak dira zerbitzua eskaintzeko prozesuak:

1. Kontrola eta gainbegiratzea.
2. Zentro, Irakasle eta Programen ebaluazioa.
3. Sistemaren eta Adierazleen ebaluazioa.
4. Zentroen aholkularitza.
5. Hezkuntza Administrazioarekin informazioa eta lankidetzak.
6. Eskolatzea.
7. Plantillak zehaztea eta baliabideak aurreikustea.

Bakoitzaren deskribapena egin da.

Planaren azpiprosesuak egiteko ikuskariaren lan espezializatua behar da, bakoitza dagokion curriculum-espezialitatearekin erlazionatutako arlo, materia eta sistemako etapetan.

Bestalde, Ikuskaritza Zerbitzuaren erantzukizunak definitu dira, bai eta ikuskaritza-zonenak eta curriculum-arloenak ere.

II. eranskinen zehaztu dira planaren lerro estrategikoak. Arreta berezia behar duten arlo kritiko batzuk bereizi dira eta bakoitzerako lortu beharreko helburu estrategikoak zehaztu dira. Era berean, prozesuak, ebaluazio-adierazleak eta kudeaketaren arduradunak zehaztu dira.

Berrikuntza teknologikoa da planaren lerro strategikoetako bat. Zerbitzuaren kudeaketa eta funtzionamendua hobetzeko sistema baten ezarpena, berriz, arlo kritiko bat da.

Ikuskaritzako kideen prestakuntza prestakuntza-lerro horizontalek eta bertikalek osatuko dute.

III. eranskinen adierazi dira planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko prozesuak. Barne-ebaluazioko prozesu bat eskatzen dute, non eskainitako zerbitzuen emaitzak (lehen maila) eta helburu estrategikoen lorpen-maila (bigarren maila) aztertuko diren. Zonako koordinatzaileen ardura izango da planaren azpiprozesuen jarraipena egitea, horrela, urteko plan bakoitzarekin lortutako emaitzen arabera lau urteko planaren emaitzak hobetzen saiatzeko. Planaren indarraldia

	<b>Haur H./Lehen H.</b>	<b>DBH<sup>1</sup></b>	<b>DBH<sup>2</sup></b>	<b>Gainerakoa<sup>3</sup></b>
Gutxieneko eskola-egunak	176	175	175	175 <sup>4</sup>
Ikasturtearen hasiera	05/09/1	05/09/1	05/09/1	05/09/1
Eskolen hasiera: adierazitako data baino lehen	05/09/12	05/09/13	05/09/15	05/09/15
Eskolen amaiera: adierazitako data baino lehen	06/06/21	06/06/21	06/06/23	06/06/23
Ikasturte amaiera	06/06/30	05/06/23	05/06/23	05/06/23
Jaiegunak	Eskola-egutegia	Eskola-egutegia	Eskola-egutegia	Eskola-egutegia
Eskolarik gabeko egunak	Herriko zaindariaren eguna	Herriko zaindariaren eguna	Herriko zaindariaren eguna	Herriko zaindariaren eguna
Zaindariaren eguna	05-11-28	05-11-28	Mailako zaindaria	Mailako zaindaria
Eskolarik gabeko egunak	10/31 eta 12/9	10/31 eta 12/9	10/31 eta 12/9	10/31 eta 12/9
Gabonetako oporrak	05/12/31tik 06/01/8ra	05/12/31tik 06/01/8ra	05/12/31tik 06/01/8ra	05/12/31tik 06/01/8ra
Aste Santuko oporrak	06/04/13tik 06/04/23ra	06/04/13tik 06/04/23ra	06/04/13tik 06/04/23ra	06/04/13tik 06/04/23ra
Ordutegi orokorra	Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez	Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez	Astelehenetik ostiralera, bi egun izan ezik	Astelehenetik ostiralera, bi egun izan ezik

amaitzean egingo da kanpoko ebaluazioa. Prozesuarekin amaitzeko amaierako memoria landuko da.

Planaren bidez aurrekusi ez diren behar eta eskariei erantzun ahal zaie. Ikasturte bakoitzean sortutako beharrak urteko planean barne hartzen dira eta plan hori lau urteko jarduera-plana lantzeko erabiltzen da.

Lau urteko indarraldia du planak, eta 2005/2006 ikasturtetik 2008/2009ra luzatzen da.

### 1.2.2.2. Zentroak

#### 1.2.2.2.1. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Lanbide Heziketa, Arte Plasti-

	Hizkuntz Eskola	Musika eta Dantza Irakaskuntzak Arautuak eta ez arautuak
Gutxieneko eskola-egunak	135	165 / 150 <sup>1</sup>
Ikasturtearen hasiera	05/09/1	05/09/1
Eskolen hasiera: adierazitako data baino lehen	05/10/3	05/09/22 • 05/09/27 <sup>1</sup>
Eskolen amaiera: adierazitako data baino lehen	06/05/31	06/06/16 • 06/05/31 <sup>1</sup>
Ikasturte amaiera	06/06/23	06/06/23
Jaiegunak	Eskola-egutegia	Eskola-egutegia
Eskolarik gabeko egunak	Herriko zaindariaren eguna	Herriko zaindariaren eguna
Zaindariaren eguna	Mailako zaindaria	Mailako zaindaria
Eskolarik gabeko egunak	10/31 eta 12/9	10/31 eta 12/9
Gabonetako oporrak	05/12/31tik 06/01/8ra	05/12/31tik 06/01/8ra
Aste Santuko oporrak	06/04/13tik 06/04/23ra	06/04/13tik 06/04/23ra

**koak eta Diseinuaren eskola-egutegia eta ordutegi orokorra. 287/2005 Ebaz., apirilaren 7koa (2005eko maiatzaren 2ko 52. zk. NAO)**

<sup>1</sup> Lehen Hezkuntzako eraikinetan irakasten duten edo LHrekin garraioa partekatzen duten zentrozen egutegia.

<sup>2</sup> DBHko zentroak.

<sup>3</sup> Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Arte Plastikoko eta Diseinuko irakaskuntzak.

<sup>4</sup> Batxilergoan 165 egun izango dira, Unibertsitatera sartzeko proba prestatzeko denbora barne hartuta. 2. Batxilergoan eskolak 05/06/26an amaituko dira eta 06/05/26 eta 06/06/9 artean Unibertsitatera sartzeko probak prestatuko dira.

Ikasturte hasieratik amaiera arte garatu beharreko jarduerak antolatu dira eta eskolen amaiera antolatu da.

Zentroek jaiegunekin erlazioatutako festak aldatzeko nolabaiteko askatasuna dute.

#### 1.2.2.2.2. Nafarroako Foru Erkidegoko musikako irakaskuntza arautuen eta dantzako irakaskuntza ez arautuen eskola-egutegia. 288/2005 Ebaz., apirilaren 7koa (2005eko maiatzaren 4ko 53. zk. NAO)

<sup>1</sup> Lehenengo kopurua oinarritzko eta erdi-mailako zikloarena da eta bigarrena goi-mailakoarena.

Ikasturte hasieratik amaiera arte garatu beharreko jarduerak zehaztu dira eta eskolen hasiera eta amaiera zehaztu da.

Zentroek jaiegunekin erlazioatutako festak aldatzeko nolabaiteko askatasuna dute.

#### 1.2.2.2.3. Sailaren eta Nafarroako Ijitoen Idazkaritzaren arteko lankidetzak-akordioa. 395/05 Ebaz., maiatzaren 5koa (2005eko uztailaren 1eko 78. zk. NAO)

2002/2003 ikasturtean sinatu zen Hezkuntza Sailaren eta Nafarroako Ijitoen Idazkaritzaren arteko lankidetzak-akordioa. Ikasturte baterako sinatu zen, luzatzeko au-

kerarekin. 2003/2004 ikasturtean luzatu egin zen aurreko urtean sinatutako hitzarmena, eta ebazpen honen bidez berriro luzatzen da 2004/2005 ikasturterako.

7.000 euroko kantitatea esleitu zaio, hau da, aurreko ikasturtean baino % 14,75 gehiago.

Akordioaren bidez bost helburu bete nahi dira, guztiak talde baztertuenen prestakuntzarekin erlazionatutakoak, eta kasu honetan ijitoekin; ikasketekin jarraitzen duen ikasle-kopurua hobetzea lortu da eta gutxiagotu eskola uzten dutenak. Gainera, familia ijitoek hezkuntza akademikoa ondo baloratzea lortu behar da bai eta ikastetxeen eta irakasleen zereginengatik interesa lortzea ere.

20 jarduera aurreikusi dira akordioan, hain zuzen "Iruñean eta eskualdean, Bigarren Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzaren ondokoan ikasle ijitoen jarraipena egiteko eta laguntza berezia emateko programaren" baitan.

Akordioaren xedeak barne hartzen ditu Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntzako irakaskuntzako ikasleak eta Nafarroa osora zabaltzen da jarduera-esparrua, Iruñeko eta bere eskualdeko esku-hartzeak zehaztuz.

Idazkaritzaren kontura dira giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide fisikoak; Sailak jartzen ditu 7.000 euroak eta berdintasunezko jarraipen-batzorde bat eratu da. Akordioaren indarraldia 2004/2005 ikasturterako da.

#### ***1.2.2.4. Nafarroako Foru Aldundiko ikastetxeetan Elkarbizitza hobetzeko plana ezartzen da. 632/05 Ebaz., uztailaren 5ekoa (2005eko abuztuaren 31ko 104. zk. NAO)***

Ebazpena 417/92 FDren<sup>44</sup>, abenduaren 14koa eta unibertsitate-maila ez duten ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituena, eta 191/97 FDren<sup>45</sup>, uztailaren 14koa eta aurrekoa aldatzen duena, testuinguruan onartu da.

Balioen hezkuntza garatzeko pertsona oroaren duintasuna errespetatu behar da, elkarbizitza, bakea eta justizia sustatzea lortu behar da. Zenbait kasutan baieztatu ahal izan denez, zentro batzuetan ikasleek jarrera bortitzak eta indarkeriazkoak erakutsi dituzte. Jarrera bortitz horien ezaugarriak bereziak dira, izan ere, helduek sartzeko oztopoak dituzten zirkuluetan gertatzen dira.

Hortaz, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko plana onartu da; jarduera-protokolo bat garatu da eta plana lantzeko orientazioak eman

<sup>44</sup> 417/92 FD, abenduaren 14koa eta unibertsitateko mailakoak ez diren Zentroetako ikasleen eskubideak eta zereginak ezartzen dituena (1993ko urtarrilaren 15eko 7. zk. NAO), zuz. (1993ko otsailaren 22ko 23. zk. NAO).

<sup>45</sup> 191/97 FD, uztailaren 14koa eta 1992ko abenduaren 14ko Foru Dekretua aldatzen duena, hain zuzen unibertsitateko mailakoak ez diren Zentroetako ikasleen eskubideak eta zereginak ezartzen dituena (1997ko abuztuaren 1eko 92. zk. NAO).

dira. Planaren helburua ikastetxeetan elkarbizitzarako giro egokia lortzea da, ikasleen hezkuntza integralaren prozesuaren zati gisa.

Elkarbizitza hobetzea, plana lantzeko baliabideak proposatzea eta elkarbizitza errazteko jarduerak, espazioak eta denborak sustatzea dira planaren helburuak.

Plana koordinatzeko antolamendua egituratu da. Elkarbizitzarako Aholkularitza eta Jarraipen-batzorde bat bereiziko dira. Bi organoen egitura eta funtzioak xedatu dira.

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako zentroek 2005-2006 ikasturterako elkarbizitzarako plan propioa landu beharko dute. Elkarbizitzarako planean Elkarbizitzarako batzorde bat osatuko da eta horren osaera eta funtzioak zehaztu dira. Tratu txarrak prebenitzeko beharrezko neurriak eta egoera horiek eskola-esparruan modu baketsuan konpontzeko mekanismoak eskainiko dira; Zentroko Eskola Kontseiluaren eta Klaustruaren proposamenak barne hartuko dira; irakasleen eta familien prestakuntzari lehentasuna emango zaio. Era berean, irakasleak, ikasleak, familiak eta, oro har, gizartea sentsibilizatzeko kanpainak egingo dira. Xede horrekin, irakasleen prestakuntza-planean berariazko edukiak landuko dira, gatazkak konpontzeko zuzendaritza-mailako jardueretarako eta ikuskaritza-jarduera garatzeko prestakuntza eskainiko da. Tutoretza- eta orientazio-planean elkarbizitza eta gatazken konponbide baketsua sustatuko dira.

Jarraipen-batzordeak planaren ebaluazioa egingo du eta hiruhilean behin eta ikasurte amaieran txosten bana landuko du.

Ebazpenak izaera orientatzailea du eta bertan definitu da esku-hartzeko egoeren aurrean garatu beharreko jardueren gida. Amaitzeko, esku-hartzeko plan bat zehazten da.

Era berean, zentroko elkarbizitzarako plana lantzeko orientazioak eskaintzen dira. 2005-2006 ikasturtean idatzi eta zentroaren urteko Programazioan barne hartuko da. Plana osatzen duten elementuak bereizi dira. Besteak beste, zentroaren urteko memorian barne hartuko dira zentroaren ezaugarriak, helburuak, beharrezko ekintzak, jarduera-prozedura, hedatzeko mekanismoa, urteko ebaluazio-prozesua eta hobetzeko proposamenak. Ebaluatu beharreko alderdiak adierazi dira.

### **1.2.2.3. Giza Baliabideak**

#### ***1.2.2.3.1. Nafarroako Foru Erkidegoko ikastolen sektorerako laneko hitzarmen kolektiboa. 507/05 ebazpena, ekainaren 13koa (2005eko uztailaren 8ko 81. zk. NAO)***

<sup>46</sup> 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 24koa eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (1995-03-29 BOE).

<sup>47</sup> CIM. Interpretazio Batzorde Mistoa. Hitzarmenaren testua interpretatzea dagokio, aldeetako batek eskatzen duenean.

Ikastolen sektoreko Enpresarien Elkarteen ordezkariak (NIE) eta LAB sindikatua-  
ren ordezkariak, 2005eko maiatzaren 26an laneko hitzarmen kolektibo bat adostu  
zuten Nafarroako Foru Erkidegoan kokatutako ikastolen sektorerako.

Eskola-orduak astean (60 minutuko eskolak)		
	2005/2006	2006/2007
Haur H.	24	23
Lehen H.	22-24	23
DBH	19-22	19-22
Batxilergoa	19-21	19-21

Hitzarmenean sartzen dira "Nafarroako Ikastolen Elkarteko" kide diren ikastola  
guztiak eta bertan lan egiten duten langile guztiak, besteren kontura kontratua-  
rekin lan egiten dutenak. Hitzarmenetik kanpo geratzen dira langileen estatutu-

		Soldaten taula			Antzintasuna		
		Oinarrizko soldata					
		2005	2006	2007	2005	2006	2007
Haur eta Lehen	I. titularra	24.823,62	25.918,46	27.087,98	540,90	564,04	588,75
Hezkuntza	I. espezialista	22.833,41	23.928,25	25.097,77	540,90	564,04	588,75
DBH	1. zikloko I.	26.235,07	27.813,82	29.474,49	644,91	674,83	706,81
	2. zikloko I.	29.112,80	30.439,35	31.857,37	644,91	674,83	706,81
Batxilergoa	I. titularra	29.112,80	30.439,35	31.857,37	644,91	674,83	706,81
Irakasle teknikariak	Psikologoa	29.112,80	30.439,35	31.857,37	644,91	674,83	706,81
Irakasle laguntzaileak	Instruktoarea	20.194,82	21.289,66	22.459,18	446,71	469,85	494,56
P. administratiboa	Idazkaritza-burua	23.564,78	24.600,53	25.713,11	554,05	581,54	611,06
	Laguntzaile adm.	20.403,01	21.235,21	22.129,15	498,20	521,42	546,35
	Laguntzaile adm.	17.592,63	18.321,16	19.103,74	450,45	473,67	498,60
Zerbitzu orokorren P.	Sukaldeburua	19.227,48	20.045,91	20.925,05	450,45	473,67	498,60
	Sukaldaria	17.087,71	17.867,82	18.705,80	450,45	473,67	498,60
	Sukaldeko lag.	15.818,05	16.566,25	17.369,96	450,45	473,67	498,60
	Atezaina	16.326,82	17.137,96	17.941,67	450,45	473,67	498,60
	Manten. lanak	16.326,82	17.036,33	17.798,48	450,45	473,67	498,60
	Jangela eta garbiketaria	15.664,18	16.373,69	17.135,84	450,45	473,67	498,60
	Zelaria	15.664,18	16.373,69	17.135,84	450,45	473,67	498,60
	Zerbitzu orokorretako pertsonala	15.664,18	16.373,69	17.135,84	450,45	473,67	498,60

ko testu bategineko 1-3 eta 2 artikuluetan aipatutako langileak (1/95 ED<sup>46</sup> mar-  
txoaren 24koa) eta entitate jabeko bazkide diren langileak, nahiz eta betetzen  
duten lana entitatearen beharrekin eta jarduerekin erlazionatuta egon,  
lan-kontraturik ez eduki eta langile horiek soldatarik jaso nahi ez dutela adiera-  
zi.

Hitzarmena 05/01/1etik 2007ko abenduaren 31ra luzatzen da.

Hitzarmenak 76 artikulua, 4 xedapen gehigarri eta bi eranskin ditu. Bertan arautu  
dira: ezarpen-esparruak, salaketa-mekanismoak, berrikustea eta luzapena, langileen  
sailkapena, langileen kontratazioa, langileen lan-uzteak, lanaldiak eta plantilla, ope-

<sup>46</sup> Hobetzeko akordio hau 2005eko azaroaren 7an Nafarroako Gobernuak hartutako Akordioak ga-  
ratu du. Azken horrek 2005 urterako hezkuntza-kontzertuen modulu ekonomikoak aldatzen zituen  
(140. zk. NAO, 2005/11/23).



rrak, gaixotasunak eta baimenak, ezagutzak eguneratzeko eta osatzeko ikastaroak, eszedentziak, soldatak, erregimen asistentzialaren hainbat alderdi (segurtasuna eta higiena, hobekuntza sozialak), sindikatuekin erlazionatutako gaiak (berme sozialak, sindikatu enpleguratuak, sindikatuaren afiliatuak, negoziatutako eta CIM<sup>47</sup>, enpresa-batzordea, elkartzeko eskubidea). Bi eranskinetan islatu dira 2005, 2006 eta 2007 urteetarako soldaten taulak eta langileen sailkapena.

Honakoa da irakasleen lan-jarduna:

Irakasleen urteko lan-jarduna 1.180 ordukoa izango da eta horietatik gutxienez 1.056 ordutan zentroan egongo da.

Jarraian adierazi dira soldaten taulak:

Urtean 400 euro gordinetako plus bat ordainduko da DBHko bi zikloetako langileekin parekatzeko. Hitzarmena amaitzean, eragindako langile guztiek eroske-

	2005	2006	2007
Irakasleen soldatak	3.211.240	3.501.060	3.787.440
Beste hainbat gastu	522.760	639.940	686.560
Haur H.ko 2. zikloa, kuotak mantentzea, Goi-mailako Prestakuntza Zikloak	480.000	480.000	288.000
HPBen arreta	139.900	148.000	158.000
26/2002 Lege Forua, irakaskuntza-jarduna murriztea	650.000	1.008.000	917.000
26/2002 Lege Forua, hainbat gastu	408.000	376.000	-
<b>Guztira</b>	<b>5.411.000</b>	<b>6.153.000</b>	<b>5.837.000</b>

ta-ahalmenari eutsiko diote, Nafarroako KPIren arabera. Zentzu horretan, ordainketa-kopuru garrantzitsua libra daiteke.

### **1.2.2.3.2. Irakaskuntza itunduan hezkuntzaren kalitatea eta lan-baldintzak hobetzeko akordioa<sup>48</sup>**

2005eko martxoaren 10ean ANEG, CECE, NIE eta UECOEn erakunde patronalek eta FSIE-SEPNA eta USO sindikatuek "Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatea eta lan-baldintzak pixkanaka hobetzeko Akordioa" sinatu zuten.

Akordioaren oinarrian 2004ko abenduaren 9an Hezkuntza Sailak eta ANEG, CECE, NIE eta UECOEn irakaskuntzako erakundeek negoziatzeko sinatutako oinarrien akordioa dago.

Azalpen-zatian esaten denez, Sailak 2004an areagotu egin du aurrekontua, 2003koa gaindituz, eta oinarrien akordioan zehaztutako kopuruetan. Guztira 4.049.000 euro dira.

Honako konpromiso hauek hartu dira:

1. Konpromiso ekonomikoak:

2005, 2006 eta 2007 ekitaldiei dagozkien aurrekontuetan honako kantitate hauek esleituko dira:

Urteroko kantitateak aurreko urteetakoekin metatzen dira, 2007an guztira 21.450.000 euroko kantitatea lortuz.

2. Zuzendaritza-funtzioari eta funtzio pedagogikoari dagokienez. "Beste hainbat gastu" kontzeptuaren bidez finantzatuko da. Zentro itunduek egingo dute banaketa, zuzendaritza-funtzioak eta funtzio pedagogikoak betetzen dituzten langileen artean. Eskola Kontseiluak onartuko ditu finantza-horniduraren ezarpenaren kontuak. Zuzendaritzako osagarria moduluko "gastu aldakorrak" kontzeptuaren kargura ordainduko da.
3. Erretiro partzial aurreratua/erreleboa egiteko kontratua. Sailak, Langileen Estatu-tuko 12.6 artikulua araberera (1131/02 ED), denbora partzialeko kontratu bat onartuko du 60 urtetik gorako kontratatuko irakasle batek aurkezten badu eta erretiro partzial aurreratua hartu nahi badu. Dagozkion soldatak ordainduko zaizkio eta osagarri bat ordainduko zaio, benetako ordainsaria jasotzeko, ordeko langilearen ordainketa dela eta kantitate baxuagoa ez jasotzeko. Gainera, Hezkuntza-administrazioak ordainduko du erreleboa egiteko kontratua.
4. Irakasleak berrantolatzea. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta EDko eta GMko Prestakuntza-zikloetako unitate-kopurua murriztearen ondorioz soberan dauden irakasleak berrantolatzeko bi-deak errazten dira, dagozkion eranskinean zehazten den prozesua jarraituz.
5. Aparteko ordainsaria antzinatasunagatik. Enpresan lortutako antzinatasunagatik aparteko ordainsari bat ordaintzeko konpromisoa hartzen da, langileen IV. Hitzarmen Kolektiboan adierazitakoa betez. Erretiro aurreratua hartzen duten langileak lotzen ditu betebeharrak, baldin eta lanean jarraitzeko eskubidea gauzatu badute eta zehaztutako kasuetan dauden langileak badira.
6. 58 urte baino gehiago eta 60 baino gutxiago dituzten langileen lanaldia murriztea. Gehienez ere, dagozkion mailako asteko irakaskuntza-jardunaren lau ordu hartuko dira.
7. Asteko gehieneko irakaskuntza-jarduna 26/02 Legearen arabera izango da. 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzako 2. zikloan gehienez ordu bat murriztuko da irakaskuntza-jarduna. Urte bereko irailaren 1etik aurrera, Lehen Hezkuntzan ordu bat murriztuko da asteko gehieneko irakaskuntza-jarduna. 2006an, urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzan aipatutako jardunaren ordu bat murriztuko da eta irailaren 1etik aurrera, berriz, ordu bat murriztuko da Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta DBHko 1. eta 2. mailetan. Bi maila horietan asteko gehieneko irakaskuntza-jarduna 23 ordukoa izango da. 2007an, urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailetan ordutegiaren murrizketak egingo dira eta irailaren 1etik aurrera Haur Hezkuntzako jarduna beste ordu bat murriztuko da.

Edozein modutan, murrizketak egin ondoren, urteko jardunak gutxienez 1.180 ordu eduki beharko ditu: horietatik 782 irakaskuntza-orduak eta 398 osagarriak. Bestalde, "Beste hainbat gastu" kontzeptutik hartuko da irakasleak ez diren langileen soldatak haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleen soldatek lortutako igoera gehi % 1 igotzeko behar dena 2005, 2006 eta 2007 urteetarako, baldin eta diru-laguntzaren zenbatekoek ahalbidetzen badute.

8. Prestakuntza-esparrua. Irakasleen prestakuntza sustatuko da. Sailak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko erraztasunak emango dira eta irakasleei banakako laguntzak eskuratzen lagunduko zaie eta euskara ikasteko ikastaro trinkoak eta hizkuntza hobetzeko ikastaroak egiteko erraztasunak emango zaizkie, irakaskuntza publikoko irakasleen baldintza berdinekin.

Gainera, zuzendaritza-postuetarako prestakuntza-ikastaroak eta ezagutzak eguneratzeko ikastaroak emango dira aginte-organoei dagozkien funtzio propioak ondo ulertzeko.

Zentro itunduei zentroen kalitaterako eta hobekuntzarako ikastaroetan parte hartzen utziko zaie.

Zentroek hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzeko bideak sustatuko dira.

Zentroi hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzen lagunduko zaie.

9. Hizkuntza Modernoaren erabilera. 26/2002 FLren laguntzarekin eta irakasleen erretiroez baliatuz, zentroek, ahal duten neurrian, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan hizkuntza irakasteko irakasle espezialistak sartuko dituzte.

10. Beste hainbat neurri. Haur Hezkuntzako jolas-garaietan irakasleek egiten dituzten zaintza-orduak sustatzeko konpromisoa hartu da. Era berean, 9 hilabetetik beherako haurrak dituzten irakasleen kasuan, edoskitze-orduak metatzeko aukera aztertzeko konpromisoa hartu da, guztira amatasunagatik 16 asteko baimena ordaindu bat lortuz.

11. Hobetzeko bermeak eta aukerak. Amaitzeko, 2004, 2005 eta 2006 urteetan urteko KPIren hazkundeak % 3,2 gaitzen badu, Hezkuntza Sailak, 2007an, ordainketa-analogiaren prozesuan eragindako kaltea konpontzeko behar diren kredituak eskatzeko konpromisoa hartu du.

Akordioaren edukia hobe daiteke, baldin eta Foru Parlamentuak aurreikusitako aurrekontu-hornidura areagotuko balu.

#### **1.2.2.4. Irakaskuntzak**

<sup>49</sup> Cit. 37. zk.

**1.2.2.4.1. Nafarroako Foru Erkidegoko ikasle atzerritarren eta gutxiengo soziokulturale-tako ikasleen hezkuntza-arretaren arautzea. 253/2004 FA, irailaren 16koa (2004ko urriaren 27ko 129. zk. NAO)**

Abenduaren 23ko 10/02 LOK<sup>49</sup>, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, guztientzako aukerak ahalbidetuko dituen kalitatezko sistema indartzeko beharra barne hartzen du. Hezkuntza-sistemak egitura malgua behar du, ikasleen gaitasuna, beharrak, interesak eta heltze-prozesuak kontuan hartuko dituena.

Sisteman gutxiengo etnikoak, kulturalak eta erlijiosoak daudela kontuan hartuta, egoerari erantzun egokia eman behar zaio. Kontuan hartu beharreko printzipioak dira gizarteratzea, normalizazioa eta arreta pertsonalizatua. Hezkuntza-premia beziei erantzun behar zaie lehenik eta behin. Hasteko, arreta-neurri arruntak jarriko dira martxan eta ondoren berariazkoak.

Ikasle etorkinek berariazko arreta-beharrak dituzte espainola bigarren hizkuntza gisa ikasteko orduan; curriculum-mailako atzerapena orekatzea eta sisteman integrazteko laguntza ziurtatu behar dira.

Hizkuntza ezagutzen ez dutenez, hizkuntzaren irakaskuntza indartzeko eta irakaskuntzan erabiltzen den hizkuntza bereganatzeko neurriak hartuko dira; atzerapenak orekatzeko curriculum-aniztasunarekin erlazionatutako neurriak eta antolamendu-mailako neurriak hartuko dira.

Zentroek eta irakasle-taldeek aniztasunari erantzuteko plan bat eduki behar dute. Plan horren testuinguruan, zentroan harrera-plan bat landuko da. Horrez gain, Sailak aniztasunari arreta emateko neurri eta laguntza ugari antolatu ditu.

FAren arabera, ikasle atzerritarrak eta baztertuta dauden gutxiengo soziokulturaletako ikasleak jardueraren xede; horiek eskolatzeko prozesua zehazten du. Xede horrekin, printzipio batzuk definitzen ditu eta ikasle horientzako Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erreserbatzen diren plazak zehazten ditu.

Eskolatzeko Tokiko Batzordeak eratzen ditu. Horiei dagokie aholkularitza ematea, sistemari buruzko informazio ematea, eskolatzeko proposamenak egitea, zentroa libreki aukeratzeko eskubidearen kaltetan gabe. Lehen Hezkuntzatik Bigarreneira igarotzean koordinazio-neurriak definitu behar dira eskola uztea saihesteko eta ikasketekin jarraituko dutela ziurtatzeko. Xede horrekin, eragindako zentrozen arteko lankidetzak sustatuko da.

Zentroek ikasle etorkinak hartzeko programak diseinatu behar dituzte. FAK zehazten du programa horien gutxieneko edukia. Ikasleen hasierako ebaluazioarekin komunikazio-hizkuntza erabiltzeko gaitasuna neurtuko da; zehazkiago, hortik abiatuta erabakiko dira laguntzak, berariazko ikaskuntza-programak, ikasleek automatikoki maila pasatzeko erabakiak eta horiek ikasten jarraitzeko neurriak. Irakasle-tutorea izango da harrera-programaren koordinatzailea eta dinamizatzailea.

Arauan deskribatu da Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko hezkuntza-erantzunaren antolamendua.

Halaber, Hezkuntza Sailak esleituko dituen laguntza eta baliabide osagarriak definitu dira. Arauak eragiten dituen ikasleak dituzten zentroyen kasuan, laguntzeko berariazko programak zehaztu dira. Zentro horiek aukeratzeko irizpideak definitu dira eta programa hauetara eta dagozkien funtzioetara atxikitako irakasleen ezaugarriak zehaztu dira.

Gaztelania ikasteko eta harrera-kulturaren oinarritzko prestakuntza lortzeko behar diren programak deskribatzen dira; zuzentzen den ikasle-mota, programara atxikitzeko irizpideak; programa bakoitzaren ratioa 12 ikaslekoa da, eta irakasleen profila eta dagozkien funtzioak zehaztu dira; programa aplikatzeko herriak eta zentroak aukeratzeko irizpideak zehaztu dira; programaren egitura eta helburuak definitu dira.

Mota honetako ikasleei zentro itunduetan eman beharreko hezkuntza-arreta zehaztu da.

**1.2.2.4.2. “Atlante” proiektua, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako oinarritzko gaitasunak hobetzeko. 279/2004 FA, urriaren 8koa (2004ko abenduaren 10eko 148. zk. NAO)**

Proiektuan garrantzi berezia ematen zaio irakaskuntzaren kalitateari, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarrek oinarritzko gaitasunak bereganatzeari eta indartzeari, eta horien bidez, arlo guztietako ezagutzak erraztea eta nor-tasuna garatzea bilatzen du. Helburu nagusitzat du hizkuntz mailako eta matematiketako oinarritzko gaitasunen garapen egokia lortzea eta antolamenduan eta erantzukizunean oinarritutako ohiturak lehenesten dira. Baztertuen dauden ikasleen errendimendu baxua hobetu nahi da eta gaitasun gehien dutenen adimen-potentziala ahalik eta gehien garatu, hartara, ahal duten neurrian, bikaintasuna lortzeko.

DBHra etapako helburu guztiak beteta iristen den ikasle-kopurua areagotu nahi da.

10 arlo kritiko bereizi dira proiektuan, eta 10 hobekuntza-lerro definitu dira. Ikas-kuntza eta oinarritzko gaitasunak hobetzeko 50 helburu estrategiko proposatu dira.

Beharrezko ekimenak eta beharrezko koordinazio-mekanismoak konprometitu dira. Ikuskaritzari dagokio proiektuaren neurriak gainbegiratzea eta ebaluatzea. Jarraipen-batzorde bat sortu da.

Proiektuak zentro pribatu itunduak barne hartzen ditu.

Honakoak arlo kritikoak:

- Irakasleen oinarritzko gaitasunak.
- Aukera-berdintasuna.
- Ebaluazioaren kultura.

- Irakasleak.
- Ikastetxeen autonomia.
- Eraitza akademikoak hobetzea.
- Koordinazio didaktikoa.
- Ikaskuntzaren errefortzua eta laguntza.
- Hezkuntza-balioak.
- Familien inplikazioa.

Arlo bakoitzari hobekuntza-lerro bat edo arrakasta lortzeko faktore kritiko bat dago. Arlo bakoitzean zenbait helburu estrategiko zehaztu dira, guztira 50.

Aurreikusitako neurriak 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan gauzatuko dira eta horien emaitzak 2006/2007 ikasturtean ebaluatuko dira.

***1.2.2.4.3. Atlante Proiekturen ildotik, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentro publiko eta itunduetan 2005/2007 Hobekuntza Plana ezartzea. 293/2005 Ebaz., apirilaren 12koa (2005eko maiatzaren 4ko 53. zk. NAO)***

2005/2006 eta 2006/2007 ikasturteetarako hobekuntza-plana ezarri da, Atlante Proiektuan adierazitako helburuen arabera.

Zentroan nahitaez hobetu beharreko arloak adierazi dira, lehenetsuneko izaera emanez. Arlo horiek zentroaren hezkuntza-proiektuan integratuko dira, bai eta urteko programazioan, tutore-ekintzaren planean eta programazio didaktikoetan ere; era berean, zentroek martxan jarri beharreko neurriak zehazten dira.

Zentroaren urteko memorian neurriak ezarri ondorengo emaitzak, eta plana aztertzeke eta ebaluatzeke prozesuak deskribatuko dira.

Saila, bere aldetik, Orientazio eta Euskararen Zerbitzuarekin erlazionatzen da eta irakasleen prestakuntza-planean prestakuntza-jarduerak eta berariazko ekintzak barne hartzen ditu; Aniztasun Zerbitzuak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako jarraibideak eta orientazioak lantzen ditu; Ikuskaritza Zerbitzuek zentroaren hobekuntza-planen jarraipena eta ebaluazioa egingo dute.

Aipatutako zerbitzuek planaren jarraipenaren-txosten bat idatziko dute 2005/2006 amaieran, eta hobekuntza-planean egindako jardueren ebaluazioaren memoria, 2006/2007 ikasturtearen amaierarako.

Ikuskaritzak, 2006-2007 ikasturtea amaitzean, ziklo bakoitzaren kanpo-ebaluazioa egingo du, bakoitzean ikasleek lortutako hizkuntz gaitasuna eta gaitasun matematikoa ezagutzeko.

<sup>50</sup> Ikus I. kapituluko 1.1.5.1 epigrafeke 98. zk.

Honakoak definitu diren lehentasunezko arloak:

- Hizkuntz gaitasuna.
- Gaitasun matematikoa.
- Barne-ebaluazioa.
- Hezkuntza-balioak.
- Familiei informazioa.

Uztailaren 19 FDa onartutako (02/09/18, 113. zk. NAO) Funts publikoekin lagundutako Haur eta Lehen Hezkuntza zentroetarako Ebaluazio eta Kalitate Plana eragin gabe utzi da.

***1.2.2.4.4. Lehen Hezkuntzako D eta A ereduetan Gaztelania eta Euskararen eta Matematikaren errendimendu-estandarrak ezartzea. 11/2005 Ebaz., urtarrilaren 20koa (2005eko maiatzaren 2ko 52. zk. NAO)***

Atlante Proiektuaren 29. eta 30. lerro estrategikoen arabera, 279/04 FAK<sup>50</sup> (04/10/8) onartutakoa, Haur eta Lehen Hezkuntzako hizkuntz eta matematikako errendimendu-estandarrak landu behar dira eta horien arabera egin behar da ebaluazioa.

Estandar bat definitzeko, dagokion curriculumean ikasleek jakin beharreko eta egiten jakin beharreko edukiak zehaztu behar dira. Kanpoko ebaluazioak egiteko erreferente argia izan behar du.

Aruak Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako Gaztelania, D ereduko Euskara, A ereduko Euskara eta Matematikari dagozkien estandarrak onartzen ditu.

***1.2.2.4.5. Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako zikloetarako Ingeleseko errendimendu-estandarrak. 566/2005 Ebaz., ekainaren 1ekoa (2005eko abuztuaren 31ko 104. zk. NAO)***

Estandarrak Atlante Proiektuarekin erlazionatuta daude eta Haur eta Lehen Hezkuntzako oinarritzko eskumenen hobekuntza ekarriko dute. Zehazkiago, 279/2004 FAK, 2004ko urriaren 8koa, ezarritako 29. eta 35. helburu estrategikoekin daude erlazionatuta.

Horrenbestez, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako Ingeleseko errendimendu-estandarrak onartu dira.

***1.2.2.4.6. 170 FAren aldaketa, maiatzaren 9koa eta Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko 18 urtetik gorako pertsonak egin beharreko proba libreen antolamendua arautzen duena (2004ko abenduaren 13ko 149. zk. NAO)***

10/2002 LOak, Hezkuntzaren Kalitateari eta proben antolamenduan lortutako emaitzei buruzkoa, zenbait aldaketa aholkatzen ditu. Aldaketa horiek honako alderdi hauek eragiten dituzte:

25 urte betetzeko datak, proba egiteko data adierazten du.

Helduen irakaskuntzako III. mailako matrikula ofizialari uko egiteko aukera, zuzeneko zein urrutikoa, azterketa librea egiteko.

Gaindituta eduki beharreko ikasgai, modulu eta irakasgaien eta salbuetsiko diren proba libreen multzoaren arteko baliokidetasun-taula (DBHko 4. maila edo DBHko esparruaren arabera pertsona helduekin).

Lau esperientzia-arlo eta hiru ariketaren inguruan prestatuko dira ariketak:

- Hizkuntz taldea: Komunikazioaren esparruko esperientziarekin erlazionatutako ariketak izango dira: Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta, hala badagokio, Atzerriko Hizkuntza.
- Talde Zientifiko-Teknologikoa: Matematika eta Natur Inguruneko ariketak egingo dira.
- Gizarte Zientzien Taldea: Gizarte Inguruneko esperientziekin erlazionatutako ariketak.

Ariketa bakoitzerako kalifikazioen eskala.

Ebaluazio-aktak, tituluak luzatzeko proposamena eta ariketaren bat gainditu dutenei luzatu beharreko ziurtapenak.

#### ***1.2.2.4.7. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa. 350/2004 FA, abenduaren 9koa (2005eko urtarrilaren 10eko 4. zk. NAO)***

Maiatzaren 15eko 135/1997 FDaren<sup>51</sup>, DBHko antolamendu- eta curriculum-mailako alderdiak antolatzen dituena, 12. artikulua araberako, ordenamendu juridikotik kanpora geratu da, 02/12/23ko 10/02 LO, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, balio gabetzen duen XG indargabetzailearen eraginez.

FAk balio gabetzen ditu: 452/03 FA, 04/10/17koa, 49/04 FA, 04/03/2koa eta 235/04 FA, 04/08/27koa eta 152/04 Ebaz.

FAren edukia urriaren 17ko 452/03 FAn xedatutakoaren nahiko antzekoa da (2003ko azaroaren 14ko 145. zk. NAO).

<sup>51</sup> 1997ko maiatzaren 30eko 65. zk. NAO.

<sup>52</sup> 61/2002 FD, martxoaren 25ekoa eta 67/1993 Foru Dekretua, otsailaren 22koa eta Nafarroako Foru Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum ezartzen duena, aldatzen duena (2002ko apirilaren 24ko 50. zk. NAO).



Etengabekoa izango da ebaluazioa, arautzailea eta curriculumaren arlo eta ikasgaien arabera egingo da. Arlo eta ikasgaien curriculumetan barne hartutako helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak jarraituko dira. Helburuen artean, etapako helburu orokorrak eta arlo eta ikasgai bakoitzaren berariazko helburuak barne hartuko dira. 67/1993 FDak, 61/2002 FDak<sup>52</sup> aldatzen duena, ezarriko ditu irizpideak. Zentzu horretan, ziklo osorako adierazitako irizpideak egokitu egingo dira etapako maila bakoitzaren arabera.

Ebaluazio-batzordearen ardura izango da prozesua garatzea; irakaslearen ardura izango da ikasleen kalifikazio pertsonala egiteko arlo edo ikasgai bakoitza; tutore-irakaslearena ebaluazio-saioaren zuzendaritza eta koordinazioa; eta batzordearena hartu beharreko gainerako erabakiena, aho batez edo gehiengo absolutua lortuz, tutorearen kalitatezko botoarekin.

Ebaluazio-prozesua martxan jartzeko sei ebaluazio egin behar dira: bi apartekoak (bat hasieran eta bestea irailaren amaieran) eta lau arruntak (hiruhileko bakoitzean bana eta beste bat ekainaren amaieran). Hasierako ebaluazioaren helburua informazioa jasotzea da, eta informazio horren bidez egokituko da irakatsi eta ikasteko prozesua ikasleen ezaugarrietara. Lehenengo hilabetea amaitzean egiten da.

Ebaluazio arruntetan, hiruhileko bakoitzean bana, kualifikazioez gain ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuari buruzko informazio adieraziko da. Bertan adierazitakoa erabiliko du tutoreak gurasoei edo tutoreei informazioa emateko, idatziz zein elkarriketen bidez. Etengabeko ebaluazioaren prozesuan, irakasleek ikasle bakoitzak behar dituen laguntza-neurriak eta curriculumaren egokitzapenak egingo dituzte.

Amaierako ebaluazio arrunta ebaluazio arruntaren hirugarren saioa amaitzean egingo da. Dagokion aktan adierazi da eduki osoa.

Amaierako ebaluazioa egitean erabakitzen da ikasleak hurrengo mailara igarotzen diren. Bakoitzean ebaluazio-akta ba idatziko da, ikasleen izenen zerrendarekin, arlo eta ikasgaietan ateratako kalifikazioekin eta maila berean jarraitzeko edo hurrengora igarotzeko erabakiarekin. Horrez gain, akta osagarri bat idatziko da, aurreko mailetatik gainditu gabe dauden arlo eta ikasgaien kalifikazioak adierazteko. DBHko 4. mailari dagokion amaierako aktan egingo da titulua luzatzeko proposamena.

Maila bakoitzerako ezarritako helburuak betetzen ez dituen ikasle bakoitzaren kasuan, Ebaluazio eta Kalifikazio Erregistroan (ebaluazioaren dokumentazioa osatzen duen agiri bat), aipatutako helburuak lortzeko hartutako hezkuntza-neurriak adieraziko dira.

Irakasle-tutoreak, ikasturte bakoitzaren amaieran, ikaslearen errendimenduari buruzko idatzizko informazioa bidaliko die familiei.

Ebaluazio Batzordeak erabakiko du ikasle batek maila gainditzen duen ala ez, amaierako ebaluazio bakoitzaren amaieran. Ekaineko amaierako ebaluazioan, ikasleek atxikitako arlo edo ikasgai batean kalifikazio positiboa lortzen ez badute, irai-

laren hasieran aparteko proba egiteko aukera edukiko dute. Helburuak bete gabe maila gainditzen duten ikasleek berriazko lan-plan bat jarraituko dute.

Maila errepikatu behar bada, osorik egingo da, eta ikasleari, amaierako bi ebaluazioak egin eta gero (ekaina eta iraila) kalifikazio negatiboa duten bi arlo edo ikasgai baino gehiago geratzen bazaizkio. Xede horrekin, mailakako edukiak lantzen dituzten maila desberdineko ikasgaiak desberdintzat joko dira. Ezingo da mailakako edukien ikasgaiaren ebaluazioa egin, baldin eta aurreko mailakoa gainditu gabe badago. Hori dela eta, Ebaluazio Batzordeak erabakiko ditu, Orientazio Sailarekin batera, maila gainditzeko arazoak konpontzen ez badira hartu beharreko neurriak. Horretarako, eranskin honetan adierazitako hezkuntza-neurri osagarrietara joko da.

DBHko ikasketak amaitzean, helburuak lortu badira, Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortuko da, eta Batxilergoa eta erdi-mailako berriazko Lanbide Heziketa egin ahal da orduan. Helburuak gainditu direla ulertuko da, baldin eta etapako arlo eta ikasgai guztietan kalifikazio positiboa lortu bada. Salbuespen moduan, Batzordeak helburuak gainditu ez dituen ikasle bati titulua ematea erabaki dezake, betiere gainditu ez diren arloak Gaztelania eta Literatura eta Matematikak, biak batera, ez badira. Gainera, biak batera ez agertzeaz gain, ezin da Euskara eta Literaturarekin batera agertu. Erabakia hartzeko ikaslearen heldutasuna eta etapako helburuak gainditzeko ahalmena hartuko dira kontuan.

Aipatutako bi ikasgaiak gainditzen ez dituzten laugarren mailako ikasleek, edo hiru arlo edo ikasgai edo gehiago gainditzen ez dituztenek, maila errepikatu beharko dute.

Curriculumaren egokitzapena behar duten ikasleen ebaluazioa eta kalifikazioa egiteko modua berriaz antolatu da (egokitzapen esanguratsua eta oso esanguratsua; egokitzapen ez esanguratsuak, UCA, Curriculum aniztasuna).

225/98 FAK<sup>53</sup> antolatzen ditu curriculum-aniztasuneko programen ebaluazioa eta programa horietan barne hartzeko irizpideak, bai eta graduatu-titulua lortzeko baldintzak ere. Dena den, aldatu egin da 10.1 puntua, curriculum-aniztasuneko ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa aipatutako FAn xedatutakora egokitzeko. Halaber, 4-1 puntua aldatu da, adin egokia duten 3. eta 4. mailako ikasleak curricu-

<sup>53</sup> 225/1998 FORU AGINDUA, ekainaren 18koa eta Hezkuntza eta Kultura Sailburuarena. Honen bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-aniztasuna antolatzeko jarraibideak ematen dira (1998ko abuztuaren 10eko 95. zk. NAO).

<sup>54</sup> 90/1998 FORU AGINDUA, apirilaren 2koa eta Hezkuntza eta Kultura Sailburuarena. Honen bidez ematen dira hezkuntza-neurri sustatzaileak eta konpentsazio-neurriak behar dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzako berriazko hezkuntza-erantzunak ezartzeko jarraibideak eta orientazioak. (2005eko maiatzaren 18ko 59. zk. NAO).

<sup>55</sup> 2438/94 ED, 1994ko abenduaren 16koa eta Erljiioaren irakaskunza arautzen duena (1995eko utarrilaren 26ko 22. zk. NAO).

<sup>56</sup> Ikus 1.1.5.3 epigrafeko 101. zk. kapitulu honetan.

lum-aniztasuneko mailetan sartzeari buruzkoa. Xede horrekin, FA honetako 2. puntuan xedatutakoa jarraituko da.

90/1998 FAK<sup>54</sup> xedatutakoaren arabera antolatzen da sustapen- eta laguntza-neurriak dituzten ikasleen jarraipena.

Kalifikazioen eskala: Gutxiegi (0, 1, 2, 3, 4), Nahiko (5), Ongi (6), Oso ongi (7, 8), Birkain (9, 10). Idatzizko kalifikazioarekin batera, zenbakizkoa jarriko da.

2438/94 EDK<sup>55</sup> ondorio akademikoei buruz xedatzen duenaren arabera, erlijio irakaskuntzen ebaluazioa curriculumeko gainerako ikasgaiekin bezala egingo da eta espediente akademikoan adieraziko dira lortutako kalifikazioak. Aitzitik, AEO ez da ebaluatuko.

Eranskin bat gehitu da, 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteena eta sustapenari eta tituluei buruzkoa. Ikasturte bakoitzaren amaieran ikasleek eduki ditzaketan egoera bereziak adierazi dira bertan, datorren ikasturterako aukera akademikoekin batera.

Araua zentro publikoei eta pribatuei aplikatuko zaie 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan.

***1.2.2.4.8. 90/98 FA aldatzen da, konpentsazio-neurriak behar dituzten DBHko bigarren zikloko ikasleen berriazko hezkuntza-erantzunak ezartzen dituena. 118/05 FA, ekainaren 28koa (2005eko abuztuaren 19ko 99. zk. NAO))***

90/98 FAren edukia 350/04 FAren<sup>56</sup> jarraibideetara egokitu da. Honakoak egin diren aldaketak:

FAn DBHko bigarren ziklorako aurreikusitako hezkuntza-erantzunak aplikatu dira DBHko lehen zikloko ikasleen gainean. Zentzu horretan, FAren titulua aldatu egin da; 1. puntua; 2.1. eta 2.1 eta 11.2. Arrazoi berdinetatik aldatu da FAren 4. puntuan adierazitakoa, eta adierazitako ezaugarriez gain, ikasleek bete behar dituzte UCAn sartzeko.

FAn adierazitako baldintzak betetzeaz gain, UCA hasten duten urtean 15 urte betetzen badituzte ikasleek, berriazko hezkuntza-neurriak hartzeko aukerak mugatu egiten dira. Zentzu horretan, ikasleek duten atzerapenak eragindako zailtasunak ez dira adinarekin lotuko. Ezarritako adin-mugekin ezinezkoa da DBHko bigarren mailako ikasleei neurriak ezartzea.

Dagoeneko ikasleen ebaluazioa egiteko ez da 515/94 FA<sup>57</sup> erabiliko erreferentzia moduan. Indarrean dagoen araudia izango da erreferentzia. Ondorioz, aldatu egi-

<sup>57</sup> 515/94 FA, abenduaren 26koa eta DBHko ikasleen ebaluazioari eta kalifikazioari buruzkoa (95/02/6 NAO).

<sup>58</sup> Ikus 225/1998 FA, ekainaren 18koa eta DBHn Curriculum Aniztasuna antolatzeko jarraibideak ematen dituena (1998/08/10, 95. zk. NAO).

<sup>59</sup> 5/2002 LO, ekainaren 19koa eta Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa (02/6/20 147. zk. NAO).

ten da FAren arabera ikasle hauen kalifikazioak ebaluazio-agirietan erregistratzeko modua eta indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da.

Desagertu egingo da eskolatuta egondako urtean 16 urte bete dituzten ikasleek UCAn urtebete gehiago egoteko salbuespena. UCA amaitzean ikasleek, DBHko titulua lortzeko gaitasunik, badute, bestelako antolamendu- eta curriculum-neurriak hartu ahal izango dituzte<sup>58</sup>. Lehen aniztasun Programen bidez egiten zen. Gainerako ikasleak PIPn sartu ahal dira (lehen berme soziala).

UCA baimentzeko eskumena duen organoa Hezkuntza Ikuskaritza eta Zerbitzuen Zerbitzuarena da eta Berrikuntza Pedagogikoko Zerbitzua ordezkatzera dator. Zentzu horretan, 9. araua aldatu da.

Desagertu egin da (FAko 11.3 puntua) zentro espezializatu batekin eskolatze partekatua egiten duten ikasleek zentro espezializatuan curriculum osoa garatzeko prozedura.

#### ***1.2.2.4.9. Kualifikazioan Sistema eta Lanbide Heziketa garatzeko jarraibideak. 05/04/14 akordioa (2005eko maiatzaren 20ko 60. zk. NAO)***

Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseiluak hartu du akordioa. 2001-2004 aldirako LH plana amaituta dago, baina Nafarroan LH sustatzen jarraitzeko asmoa agertu da, 5/2002 LOn<sup>59</sup>, Kualifikazioei buruzkoa, adierazitakoaren arabera eta 2000ko Europar Kontseiluak emandako EBko jarraibideen arabera (Copenhague 2002 eta Maastricht 2004).

Horrenbestez, Nafarroan LH garatzeko eta Kualifikazioen Sistema Nazionala ezartzeko jarraibideak onartu dira. Nafarroako Gobernuaren mendeko organoek garatzen dituzten LHko ekintzetan, Kualifikazioen Sistema Nazionalarekin erlazioatutako kualifikazio profesionalean. 5/02 LO, Nafarroako Kualifikazioei eta LHri buruzkoa, garatzeko esparrua ezartzen du. Gainera, zentzu horretan eragile sozialek eta ekonomikoek lortzen dituzten akordioak orientatzen ditu.

LHren helburuak dira lanbide edo ofizio bat ondo betetzeko gaitasuna bermatzea eta enpresa-produktibitateko eta –berrikuntzetako helburuak betetzeko kualifikazioa hobetzea. Zentzu horretan, parte-hartzea, koordinazioa, baliabideen koordinazioa eta prestakuntza-eskaintzen kalitatea dira jarraituko diren printzipioak.

Hortaz, eragile ekonomikoek eta sozialek parte hartzeko eta horiei galdetzeko sektorekako batzordeak sortzeko lan egingo da. Batzorde horiek Nafarroako Kualifikazioen Institutuaren eta Enplegu Behategiaren erreferentzia izango dira kualifikazioen bilakaera aztertzeko eta prestakuntza-beharren diagnostikoa egiteko. Informazio horrekin ekarpen bikoitza egin nahi da: Kualifikazio Sistemara bata, beharrezko eta lehentasunezko kualifikazioak proposatuz; Sistematik, elementuak

sektorekako negozioazio kolektibora zuzenduz. Laburbilduz, LH enplegu-eskariarekin, enplegu-eskaintzarekin eta lan-kategoriarekin erlazionatu behar da.

Koordinazioa NGtik Hezkuntza eta Lanarekin zerikusia duten sailen artean egin behar da. Nafarroako Kualifikazioen Institutua da, bestalde, laguntzeko eta erreferentzi tekniko bezala erabiltzeko zentroa.

Baliabideen errentagarritasuna ateratzeko hasierako prestakuntza-eskaintza, arautua, lanerakoa eta etengabekoa, behar den bezala antolatu behar da, hartara, esku-lanaren defizita duten lanbideetan prestakuntza-eskaintzaren espezializazioa hobetzeko; orain arte gizonezkoenak ziren jarduera eta lanetan emakumezkoentzako prestakuntza-eskaintza egiteko; eskolan porrot egin duten gazteentzako eta etorkinentzako berriazko eskaintza diseinatzeko; programazio malgua eta koordinatua egiteko. Lanerako Lanbide Heziketatik Etengabeko Lanbide Heziketara igarotzeko; moduluen araberako prestakuntza oinarrian duen prestakuntza-ibilbide luzeak diseinatzeko.

Kalitatea lortzeko irakasleak eta hezitzaileak prestatzeko urteko programak antolatu behar dira.

Honako hauek dira Kualifikazioen Sistemako elementuak: Behategia, Nafarroako Kualifikazioen Institutua, Lanbide Orientazioko Sare Integratua eta Prestakuntza Zentroak.

Behategia Nafarroako Enplegu Behategiaren mendeko organoa da eta Enplegu Behategian sartzen da. Helburutzat du ikasketa estrategikoak egitea laneko eta inguruko prestakuntza-eskaintzen plangintza hobetzeko.

Institutuak LHko Nafarroako Kontseiluari laguntzen dio inguru produktiboko kualifikazio-eskariak aztertzen eta definitzen. Xede horrekin, egungo lanbide-profilek kualifikazioa eta diseinua egiteko diseinuak landuko ditu. Era berean, prestakuntza-eskaintzak osatuko ditu Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren arabera. Zentzu horretan, prestakuntza-ibilbideak eta eskumenak kreditatzeko prozesuak adieraziko ditu.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dagokio Sare integratua diseinatzea, eta horren bidez koordinatuko eta orientatuko dira gaur egun erabilgarri dauden prestakuntza-baliabideak eta orientazio-baliabideak, hartara, horien bidez herritarrei ahalik eta zerbitzurik bikainena eskaintzeko prestakuntza-mailako eta lanbide-mailako erabaki pertsonalak hartzeko orduan, hala nola lan-merkatuaren arabera, lan-integrazioa eta lehiakortasuna hobetzeko. Proposamen guztiak Hezkuntza Sailarekin koordinatuko dira. Sarea integratua, deszentralizatua, eskuragarria, elkarrengilea, doakoa eta koordinatua izango da.

---

<sup>60</sup> 1/1990 LO, urriaren 3koa eta hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzkoa (1990eko urriaren 4ko 238. zk. NAO).

<sup>61</sup> Cit. 37. zk.

Zentroen sarea sartzten dira zentro integratua, LHko zentro publikoak eta itunduak; erreferentziatzko zentro homologatuak eta zentro homologatuak. Zentro integratuak FDren bidez arautuko dira; hasierako prestakuntza arautua, etengabekoa, lanerakoa, graduatu ondoko prestakuntza eta irakasleen prestakuntza eskainiko da. Gainera, beste zentroi laguntzen die esperientziaren bidez bereganatutako eskumena ebaluatzeko prozesuetan. Era berean, informazioa emateko funtzioak eta orientazio profesionala ematekoak egingo ditu. Beste zentroi dagozkien funtzioak definitu dira.

Gaitasuna ziurtatzearekin, ikaskuntza formalean eta ez formaletan lortutako ikaskuntzen kualifikazioak ezagutu eta baliozkotu nahi dira, eta oraingoan, ikaskuntza-modu horien eta EBko jarraibideen arteko oztupoak gainditu dira. Parte hartzen duten aldeek akordioak lortu behar dituzte, ziurtapenen bidez kalitatea bermatuta geratzen da eta balio soziala dute, informazio, aholkularitza eta orientazio profesionalaren sistemaren bidez.

Gaitasuna Ziurtatzeko Agentziari dagokio, Lan Sailera atxikita dagoena, langileen informazioa eta aholkularitza ematea eta ebaluazio-prozesuen kudeaketa. Gainera, ziurtapenen fitxategi bat eduki beharko du. Nafarroako Kualifikazioen Institutuak diseinatuko ditu lanbide-gaitasuna aitortzeko, erregistratzeko eta ziurtatzeko prozedura teknikoak. Ziurtapenek titulu ofizialen gainean ondorio akademikorik eragiten badute, Hezkuntza Sailak ezarriko ditu homologatzeko betekizunak.

Hiru fase bereziko dira gaitasuna ebaluatzeko: informazioa, orientazioa eta ebaluazioa.

#### ***1.2.2.4.10. Arreta Soziosanitarioko Teknikari Titulua. 269/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko irailaren 22ko 114. zk. NAO)***

Foru Dekretua 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa<sup>62</sup>, 35. artikuluan babesten da, abenduaren 23ko 10/2002

<sup>62</sup> 496/2003 ED, maiatzaren 2koa eta arreta soziosanitarioko Teknikariaren titulua eta dagozkion irakaskuntza komunak ezartzen dituen (2003ko maiatzaren 24ko 124. zk. NAO).

<sup>63</sup> 676/1993 ED, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak ezartzeko jarraibide orokorrak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak zehazten dituen (1993ko maiatzaren 22ko 122. zk. NAO).

<sup>64</sup> 1635/1995 ED, urriaren 6koa eta berariazko lanbide-heziketako zehaztapen propioen adskripzioari buruzkoa (1995eko urriaren 10eko 242. zk. NAO).

<sup>65</sup> 777/1998 ED, apirilaren 30ekoa eta hezkuntza-sistemaren barruan lanbide-prestakuntzako antolamenduaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen (1998ko maiatzaren 8ko 110. zk. BOE).

<sup>66</sup> 260/1999 FD, abuztuaren 2koa eta Hezkuntza eta Kultura Sailak profesional espezialistak kontratatze eta izendatzeko erregimena arautzen duena (1999ko abuztuaren 20ko 104. zk. NAO).

LOren 8. artikuluan, Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa<sup>61</sup> eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldean curriculum bat ezartzeko duten eskumenean.

496/2003 EDk, maiatzaren 2koa, Arreta Soziosanitarioko Teknikariaren titulua ezartzen du<sup>62</sup>. Dekretu horretan 676/1993 ED<sup>63</sup> aipatzen da, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak ezartzeko jarraibide orokorrak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak zehazten dituena. Xedapenarekin amaitzeko, 1635/1995 EDren, urriaren 6koa, I. lib eta IVb eranskinak aldatzen dira.

Xede horrekin, EDn 1635/1995 EDn<sup>64</sup>, urriaren 6koa, adierazitakora lotu da eta testua 777/1998 EDn<sup>65</sup>, apirilaren 30ekoa, araututakora lortu da. Azken horrek hezkuntza-sistemaren barruan lanbide-heziketak duen antolamendua arautzen du. Era berean, 676/1997 EDren, maiatzaren 7koa, 7. artikulua arabera, EDk profil profesionala eta tituluari dagokion gaitasun profesionala adierazten ditu.

Modu horretan, FDK titulua inskribatzen du: erdi-mailakotzat definitzen du, Zerbitzu Soziosanitarioen arloan, eta 2000 orduko iraupena zehazten du.

Titulua ematen duten irakaskuntzak egituratzeko orduan, kontuan hartzen dira sistema produktiboa eta I. eranskinean adierazitako helburuak, gaitasunak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak.

II. eranskinean, berriz, irakasleek modulu bakoitzean irakatsi beharreko espezialitateak zehazten dira, aipatzen den araudiaren arabera. Horren arabera, lanbide-moduluak profesional espezialistek eman ditzakete, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan xedatutakoa betez<sup>66</sup>.

Zentroek irakaskuntzak garatzeko duten autonomia pedagogikoa eta horiek inguruko ezaugarrietara egokitzeko autonomia azpimarratzen da. Irakaskuntza horiek guztiak zikloko curriculum proiektuan zehaztuko dira eta ikasleen beharrei erantzuteko egokiak izango dira.

<sup>67</sup> 362/2004 ED, martxoaren 5koa eta berariazko lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2004ko martxoaren 26ko 74. zk. BOE).

<sup>68</sup> ECD/2 OM 764/2002, urriaren 30eko eta 1/1990 LO, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, ezarritako berariazko lanbide-heziketa egiten duten ikasleen ebaluazio-prozesua, kreditazio akademikoa eta mugikortasunaren oinarriko alderdiak arautzen dituena.

<sup>69</sup> 251/1992 FD, uztailaren 6koa eta Nafarroako Foru Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen duena (1992ko abuztuaren 3ko 93. zk. NAO).

<sup>70</sup> 35/1995 FD, otsailaren 13koa eta Nafarroako Foru Erkidegoan Lanbide Heziketako egitura eta antolamenduaren jarraibideak eta arte plastikoen eta diseinuaren egitura eta antolamenduaren jarraibideak ezartzen dituena (1995eko martxoaren 10eko NAO).

Zentroetako sailen ardura izango da lanbide-modulu desberdinen programazioak egitea, eta horretarako edukia zehaztu da.

<b>Lanbide Moduluak</b>				
<b>Lanbide Modulusa</b>	<b>Iraupena</b>	<b>Asteko ordutegia</b>	<b>Maila</b>	
Esku-hartzeen plangintza eta kontrola	100	5	2	
Arreta Sanitaria	165	5	1	
Higienea	99	3	1	
Arreta eta laguntza psikosoziala	165	5	1	
Berariazko taldeen aisialdia	99	3	1	
Etxean bertako laguntza	132	4	1	
Familiaren elikadura eta nutrizioa	66	2	1	
Enpresa txikiaren administrazioa, kudeaketa eta antolamendua	60	3	2	
Berariazko taldeen behar fisikoak eta psikosozialak	100	5	2	
Komunikazio alternatiboa	60	3	2	
Esku-hartzearen testuinguru emozionala	198	6	1	
Informazioaren eta komunikazioaren teknologien oinarritzko teknikak	66	2	1	
Oinarritzko sukaldaritza	40	2	2	
Laguntza	140	7	2	
Landa-ingurunekeo erlazioak	40	2	2	
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	60	3	2	
Prestakuntza lantokietan	410	Lanaldian		

Irakaskuntzen ebaluazioa egiteko 362/2004 RE, martxoaren 5ekoa<sup>67</sup> eta ECD/2764/2002 OM, urriaren 30ekoa<sup>68</sup> aipatzen ditu.

Tituluaren irakaskuntzak eskuratzeko betekizunak zehazten ditu. Bigarren Hezikuntzako Graduatuaren titulua dutenak eta martxoaren 5eko 362/2004 sarre-ra-proba gainditzen dutenak sar daitezke.

Arreta Soziosanitarioko Teknikariaren titulua aitortzen zaie zikloko modulu profesional guztietan ebaluazio positiboa lortzen dutenei.

Baliozkotu ahal diren modulu profesionalak lanerako lanbide-heziketarekin erlazio-natzen ditu. Era berean, laneko praktikarekin erlazio-natzen ditu.

Zikloko titulua duten pertsona guztiei Batxilergoko ikasketen modalitate guztietara sartzeko eskubidea aitortzen zaie.

251/1992 FD<sup>69</sup> eta 777/1998 ED, apirilaren 3ekoa, aipatzen ditu aipatutako irakaskuntzak emango dituzten zentroak baimentzeko prozedura zehazteko. III. eranski-

<sup>71</sup> Cit. 60. zk.

<sup>72</sup> Cit. 37. zk.

<sup>73</sup> 2043/1995 ED, abenduaren 22koa eta Ekipo Industrialen Mantentzearen Goi-mailako Teknikariaren titulua eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak, ezartzend ituen (1996ko otsailaren 22ko 44. zk. BOE).

<sup>74</sup> Cit. 63. zk.

<sup>75</sup> 1997ko apirilaren 18ko 47. zk. NAO.



nean adierazi dira prestakuntza-espazioek eta –instalazioek bete beharreko baldintzak.

35/1995 FDren<sup>70</sup>, otsailaren 13koa, 7. artikulua aipatuz dioen moduan, Prestakuntza lantokietan (FCT) izeneko modulua 2. mailan egingo da eta, edozein kasutan, ikasturte hau amaitu aurreko 6 asteetan amaituko da.

Hezkuntza Sailari dekretuak ezarritako curriculum helduen hezkuntzaren ezaugarrietara eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitzeko baimena ematen dio.

Sailak eskumena du zikloko moduluak osatzen dituzten ordutegiak aldatzeko, I. eranskinen 2.3 atalean adierazitakoari jarraituz, betiere arrazoi sendoak badaude eta gutxieneko ordutegiak betetzen badira.

Ikasketak egiteko baldintzak 8. artikuluan adierazitakoetatik desberdinak izan daitezke.

I. eranskinen 2.2 atala aldatzen du, “modulu profesionalen” iraupenari buruzkoa; modulu propioak eta 2.3 atala, “Ordutegiaren iraupena, sekuentzia eta banaketari” buruzkoa, ondoren adierazi den moduan:

<b>Lanbide Moduluak. A aukera</b>			
<b>Lanbide Modulua</b>	<b>Iraupena</b>	<b>Asteko ordutegia</b>	<b>Maila</b>
Mantentze-prozesuak eta kudeaketa	69	3	2
Sistema mekanikoaren muntaia eta mantentzea	138	6	2
Sistema hidraulikoaren eta pneumatikoaren muntaia eta manten.	198	6	1
Sistema elektrikoaren eta elektronikoaren muntaia eta manten.	231	7	1
Produktzio-sistema automatikoen muntaia eta manten.	230	10	2
Industria-ekipoa aldatzeko proiektua	161	7	2
Manten. eta muntaiarako fabrikazio-teknikak	165	5	1
Errepresentazio grafikoa makinerian	132	4	1
Ekipo eta instalazioen manten. eta muntaien kalitatea	66	2	1
Ekipo eta instalazioen manten. eta muntaien segurtasun-planak	46	2	2
Makinen elementuak	132	4	1
Lan-inguruneke erlazioak	66	2	1
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	46	2	2
Prestakuntza lantokietan	320	Lanaldian	2

<sup>76</sup> Cit. 66. zk.

<sup>77</sup> Cit. 67. zk.

<sup>78</sup> Cit. 68. zk.

<sup>79</sup> Cit. 69. zk.

<sup>80</sup> Cit. 65. zk.

## Lanbide Moduluak. B aukera

Lanbide Modulua	Iraupena	Asteko ordutegia	Maila
Mantentze-prozesuak eta kudeaketa	78	3	2
Sistema mekanikoaren muntaia eta mantentzea	132	4	1
Sistema hidraulikoaren eta pneumatikoaren muntaia eta manten.	99	3	1
Sistema elektrikoaren eta elektronikoaren muntaia eta manten.	132	4	1
Produktzio-sistema automatikoen muntaia eta manten.	182	7	2
Industria-ekipoa aldatzeko proiektua	130	5	2
Manten. eta muntaiarako fabrikazio-teknikak	99	3	1
Errepresentazio grafikoa makinerian	99	3	1
Ekipo eta instalazioen manten. eta muntaien kalitatea	78	3	2
Ekipo eta instalazioen manten. eta muntaien segurtasun-planak	52	2	2
Makinen elementuak	66	2	1
Lan-inguruneko erlazioak	52	2	2
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	52	2	2
Prestakuntza lantokietan	230	Lanaldian	2
Energia berriztagarrien industria-instalazioen muntaia eta mant.	165	6	2
Energia berriztagarrien sarrera	156	5	1
Sistema elektronikoak eta informatikoak	156	6	1

#### 1.2.2.4.11. Ekipo Industrialen Mantentzeko goi-mailako prestakuntza-zikloaren curriculum. 270/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko urriaren 6ko 120 zk. NAO)

Foru Dekretu honek beste hauen babes du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 35. art.<sup>71</sup>, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>72</sup>, eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculum ezartzeko duten eskumenean.

Abenduaren 22ko 2043/1995 EDk<sup>73</sup> ezartzen du Ekipo Industrialen Mantentzearen Goi-mailako Teknikariaren titulua. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>74</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. EDk oinarritzko izaera du.

Babes horrekin onartu zen 55/1997 FD, martxoaren 3koa<sup>75</sup> eta Foru Erkidegoko esparruan Ekipo Industrialen Teknikariaren tituluari dagokion goi-mailako prestakuntza-zikloaren curriculum ezarri zuen.

Martxoaren 3ko 55/1997 FDko 4., 5., 8., 9., 10., 14. eta 15. artikulua aldatu dira. 4. artikulua berriak modulu profesionalen irakaskuntzak antolatzen ditu, besteak beste energia berriztagarrien esparruari dagozkion moduluak zehazten dira. 5. artikulua berriak, bestalde, II. eranskinaren ildotik, irakasleek modulu bakoitzean eta aipatutako indarreango oinarritzko araudiaren arabera eman beharreko espezialitateak zehazten ditu. Horren arabera, modulu profesionalak profesional espezialistek

<sup>81</sup> Cit. 60. zk.

<sup>82</sup> Cit. 37. zk.

<sup>83</sup> 1716/1996 ED, uztailaren 12koa eta Plastikoa eta kautxua eraldatzeko lanen Teknikariaren titulua (1993ko uztailaren 22ko BOE).

<sup>84</sup> Cit. 63. zk.

eman ditzakete, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan<sup>76</sup> xedatzen denaren arabera. 8. artikuluko berriak irakaskuntzen ebaluazioari buruz dihardu eta martxoaren 5eko 362/2004 EDn eta<sup>77</sup> ECD/2764/2002 OMn<sup>78</sup> xedatutakoa aipatzen du. 9. artikuluko berriak ikasketak egiteko behar den titulazioa aipatzen du. 10. artikuluko berriak, berri, martxoaren 5eko 362/2004 EDn adierazitako sartzeko proba gainditzen dutenek irakaskuntzak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu. 14. artikuluko berriak zikloko titulua duten pertsonen unibertsitateko ikasketak egiteko eskubidea dute-la aitortzen da. 15. artikuluko berriak, azkenik, 251/1992 FD<sup>79</sup> eta 777/1998 ED<sup>80</sup>, apirilaren 30ekoa, aipatzen dira, irakaskuntzak eskaintzeko zentroen baimentzeari buruzkoa. III. eranskinean barne hartu dira prestakuntza-espazio eta -instalazioen betekizunak.

4. artikuluko I., II. eta III. eranskinak aldatzen ditu.

Xedapen Gehigarriak aldatu dira. Aldatu den lehenengo XGk Hezkuntza Saila baimentzen du dekretuak ezarritako curriculum helduen hezkuntzaren ezaugarrietara eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitzeko. Bigarren XGk egiten duen moduluen ordutegiaren banaketa I. eranskinaren 2.3 puntuari adierazitakoaren desberdina da, betiere arrazoi sendoak badaude. Aldatu den hirugarren XGk ikasketak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu eta 9. eta 10. artikuluetan adierazitakoetatik desberdinak dira.

Lanbide Moduluak	Lanbide Moduluak		
	Iraupena	Asteko ordutegia	Maila
Familiako nekazaritza-ustiapenaren antolamendua eta kudeaketa	88	4	2
Nekazaritza-instalazioak	99	4	1
Nekazaritza-mekanizazioa	165	5	1
Landareen produkzioa	165	5	1
Baratze-hazkuntza	176	8	2
Frutagintza-hazkuntza	154	7	2
Kontrol sanitarioko metodoak	99	3	1
Agroteknologia	165	5	1
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	66	3	2
Propioa 1	297	9	1
Propioa 2	176	8	2
Prestakuntza Lantokian	350	Lanaldian	2

#### ***1.2.2.4.12. Nekazaritza Esplotazio Intentsiboen Teknikariaren titulua. 271/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko irailaren 22ko 114. zk. NAO)***

<sup>85</sup> 1997ko abenduaren 22ko 153. zk. NAO.

<sup>86</sup> Cit. 66. zk.

<sup>87</sup> Cit. 67. zk.

<sup>88</sup> Cit. 68. zk.

<sup>89</sup> Cit. 69. zk.

<sup>90</sup> Cit. 65. zk.

Foru Dekretu honek beste hauen babesa du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 35. art.<sup>91</sup>, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>92</sup>, eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculuma ezartzeko duten eskumenean.

Uztailaren 12ko 1716/1996 EDk<sup>93</sup> ezartzen du Nekazaritza Esplotazio Intentsiboen Teknikariaren titulua. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>94</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. EDk oinarritzko izaera du.

Babes horrekin onartu zen 195/1997 FD, uztailaren 21ekoa<sup>95</sup> eta Foru Erkidegoko esparruan Nekazaritza Esplotazio Intentsiboen Teknikariaren titulua ezarri zuena.

Ekainaren 21eko 195/1997 FDko 4., 5., 8., 10., 14. eta 15. artikulua aldatu dira. 4. artikuluko berriak modulu profesionalen irakaskuntzak antolatzen ditu. 5. artikuluko berriak, bestalde, II. eranskinaren ildotik, irakasleek modulu bakoitzean eta aipatutako indarreango oinarritzko araudiaren arabera eman beharreko espezialitateak zehazten ditu. Horren arabera, modulu profesionalak profesional espezialistek eman ditzakete, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan<sup>96</sup> xedatzen denaren arabera. 8. artikuluko berriak irakaskuntzen ebaluazioari buruzko dihardu eta martxoaren 5eko 362/2004 EDn eta<sup>97</sup> ECD/2764/2002 OMn<sup>98</sup> xedatutakoa aipatzen du. 10. artikuluko berriak, berri, martxoaren 5eko 362/2004 EDn adierazitako sartzeko proba gairak dituzten irakaskuntzak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu. 14. artikuluko berriak zikloko titulua duten pertsonen unibertsitateko ikasketak egiteko eskubidea dutela aitortzen da. 15. artikuluko berriak, azkenik, 251/1992 FD<sup>99</sup> eta 777/1998 ED<sup>90</sup>, apirilaren 30ekoa, aipatzen dira, irakaskuntzak eskaintzeko zentroen baimentzeari buruzkoa. III. eranskinen bane hartu dira prestakuntza-espazio eta -instalazioen betekizunak.

I. eranskineko 2.2 atala aldatzen du, "modulu profesionalen" iraupenari buruzkoa; modulu propioak eta 2.3 atala, "Ordutegiaren iraupena, sekuentzia eta banaketari" buruzkoa, ondoren adierazi den moduan:

<sup>91</sup> Cit. 60. zk.

<sup>92</sup> Cit. 37. zk.

<sup>93</sup> 1716/1996 ED, uztailaren 12koa eta Plastikoa eta kautxua eraldatzeko lanen Teknikariaren titulua (1993ko uztailaren 22ko BOE).

<sup>94</sup> Cit. 63. zk.

<sup>95</sup> 1997ko abenduaren 22ko 153. zk. NAO.

<sup>96</sup> Cit. 66. zk.

<sup>97</sup> Cit. 67. zk.

<sup>98</sup> Cit. 68. zk.

<sup>99</sup> Cit. 69. zk.

<sup>100</sup> Cit. 65. zk.

Xedapen Gehigarriak aldatu dira. Aldatu den lehenengo XGk Hezkuntza Saila baimentzen du dekretuak ezarritako curriculumak helduen hezkuntzaren ezaugarrietara eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitzeko. Aldatu den hirugarren XGk ikasketak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu eta 9. eta 10. artikuluetan adierazitakoetatik desberdinak dira.

Lanbide Moduluak	Lanbide Moduluak		
	Iraupena	Asteko ordutegia	Maila
Hornikuntzaren kudeaketa	132	4	1
Finantza-kudeaketa	165	5	1
Giza Baliabideak	132	4	1
Kontabilitatea eta fiskalitatea	297	9	1
Merkataritza-kudeaketa eta bezeroaren arretarako zerbitzua	88	4	2
Herri-administrazioa	88	4	2
Finantza- eta aseguru-produktuak eta zerbitzuak	88	4	2
Auditoria	88	4	2
Aplikazio informatikoak eta teklatuaren erabilera	264	8	1
Enpresa-proiektua	154	7	2
Lanerako-prestakuntza eta -orientazioa	66	3	2
Kudeaketa integratua enpresan	88	4	2
Prestakuntza lantokian	350	Lanaldian	2

#### ***1.2.2.2.13. Administrazio eta Finantzetako Goi-mailako prestakuntza-zikloaren curriculumak. 272/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko irailaren 3ko 106. zk. NAO)***

Foru Dekretu honek beste hauen babesa du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoa, 35. art.<sup>91</sup>, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>92</sup>, eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculumak ezartzeko duten eskumenean.

Uztailaren 12ko 1716/1996 EDK<sup>93</sup> ezartzen du Nekazaritza Esplotazio Intentsiboen Teknikariaren titulua. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>94</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. EDk oinarritzko izaera du.

Babes horrekin onartu zen 258/1996 FD ekainaren 24koa<sup>95</sup>, Foru Erkidegoko esparruan Administrazio eta Finantzetako tituluari dagokion goi-mailako prestakuntza-zikloaren curriculumak ezartzen duena.

Ekainaren 24ko 258/1996 FDko 4., 5., 8., 9., 10., 14. eta 15. artikuluek aldatu dira. 4. artikuluko berriak modulu profesionalen irakaskuntzak antolatzen ditu. 5. artikuluko berriak, bestalde, II. eranskinaren ildotik, irakasleek modulu bakoitzean eta aipatutako indarreango oinarritzko araudiaren arabera eman beharreko espezialitateak

<sup>101</sup> Cit. 60. zk.

<sup>102</sup> Cit. 37. zk.

zehazten ditu. Horren arabera, modulu profesionalak profesional espezialistek eman ditzakete, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan<sup>96</sup> xedatzen denaren arabera. 8. artikuluko berriak irakaskuntzen ebaluazioari buruzko dihardu eta martxoaren 5eko 362/2004 EDn eta<sup>97</sup> ECD/2764/2002 OMn<sup>98</sup> xedatutakoa aipatzen du. 9. artikuluko berriak ikasketak egiteko behar den titulazioa aipatzen du. 10. artikuluko berriak, berriaz, martxoaren 5eko 362/2004 EDn adierazitako sartzeko proba gainditzen dutenek irakaskuntzak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu. 14. artikuluko berriak zikloko titulua duten pertsonen unibertsitateko ikasketak egiteko eskubidea dute-la aitortzen da. 15. artikuluko berriak, azkenik, 251/1992 FD<sup>99</sup> eta 777/1998 ED<sup>100</sup>, apirilaren 30ekoa, aipatzen dira, irakaskuntzak eskaintzeko zentroen baimentzeari buruzkoa. III. eranskinen barne hartu dira prestakuntza-espazio eta -instalazioen betekizunak.

I. eranskinen 2.2 atala aldatzen du, "modulu profesionalen" iraupenari buruzkoa; modulu propioak eta 2.3 atala, "Ordutegiaren iraupena, sekuentzia eta banaketari" buruzkoa, ondoren adierazi den moduan:

Xedapen Gehigarriak aldatu dira. Aldatu den lehenengo XGk Hezkuntza Saila baimentzen du dekretuak ezarritako curriculumak helduen hezkuntzaren ezaugarrietara eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitzeko. Bigarren XGk egiten duen moduluen ordutegiaren banaketa I. eranskinaren 2.3 puntuan adierazitakoaren desberdina da, betiere arrazoi sendoak badaude. Aldatu den hirugarren XGk ikasketak egin ahal izateko baldintzak ezartzen ditu eta 9. eta 10. artikuluetan adierazitakoetatik desberdinak dira.

***1.2.2.4.14. Jarduera Fisiko eta Kirol Jardueren Animazioko Goi-mailako Teknikariaren tituluarri dagozkion Goi-mailako Prestakuntza Zikloaren curriculumak. 273/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko urriaren 13ko 123. zk. NAO)***

Foru Dekretu honek beste hauen babesa du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 35. art.<sup>101</sup>, Estatuari autonomia-erkidegoei galdetu eta gero lanbide-heziketari dagozkion tituluak ezartzeko eskumena ematen diona, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkun-

<sup>103</sup> 2048/1995 ED, abenduaren 22koa eta Jarduera Fisiko eta Kirol Jardueren Animazioko Goi mailako Teknikariaren titulua eta dagozkion irakaskuntzak ezartzen dituen (1996ko otsailaren 9ko 34. zk. BOE).

<sup>104</sup> Cit. 63. zk.

<sup>105</sup> Cit. 66. zk.

<sup>106</sup> Cit. 67. zk.

<sup>107</sup> Cit. 68. zk.

<sup>108</sup> Cit. 69. zk.

<sup>109</sup> Cit. 65. zk.

tzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>102</sup>, eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculuma ezartzeko duten eskumenean.

Aldi berean, abenduaren 22ko 2048/1995 EDren<sup>103</sup> babesa du. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>104</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. FDK, 676/1993 EDren, maiatzaren 7koa, 7. artikulua arabera, profil profesionalaren eta tituluaren berezko gaitasunak zehazten ditu.

Tituluaren aplikazio-esparrua Nafarroako Foru Erkidegora mugatzen da. Goi-mailako titulutzat jotzen da eta Jarduera Fisikoen eta Kirol Jardueren familia profesionaletan sailkatu da, 2000 orduko iraupenarekin.

Eranskin batean aipatu dira zikloa osatzen duten moduluak. Modulu bakoitza eman behar duten irakasleen espezialitateak zehaztu dira eta, era berean, modulu profesionalak profesional espezialistek eman ditzaketela adierazten da, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan xedatzen den moduan<sup>105</sup>.

Zentroek autonomia dute irakaskuntzak garatzeko eta inguruko ezaugarrietara egokitzeko. Irakaskuntzak curriculum-proiektuan zehaztuko dira. Sailek landuko dituzte modulu profesionalen programazioak eta gutxieneko edukia zehaztu da. Irakaskuntzen ebaluazioa martxoaren 5eko 362/2004 EDn<sup>106</sup> eta urriaren 30eko ECD/24764/2002 OMn xedatutakora lotuko da.<sup>107</sup> Irakaskuntzak egin ahal izateko betekizunak adierazi dira Batxilergoko tituluaren duntentzat eta martxoaren 5eko 362/2004 EDk adierazitako sarrera-proba gaintzen duntentzat. Ikasketak egin ahal izateko mekanismo bereziak ere aipatu dira.

Lanerako lanbide-heziketarekin baliozkotu ahal diren modulu profesionalak zere-rendatu dira. Era berean, laneko praktikarekin bateragarriak izan daitezkeenak zere-rendatu dira.

251/1992 FD<sup>108</sup> eta 777/1998<sup>109</sup> ED, apirilaren 30ekoa, dira mota honetako irakaskuntzak ematen dituzten zentroak baimentzeko erreferentzia. Besteak beste, III.

<sup>110</sup> Cit. 60. zk.

<sup>111</sup> Cit. 37. zk.

<sup>112</sup> 816/1993 ED, maiatzaren 28koa eta Produktu Farmazeutikoen fabrikazioko Teknikariaren tituluak eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituenak (1993ko abuztuaren 13ko BOE).

<sup>113</sup> Cit. 63. zk.

<sup>114</sup> 2207/1993 ED, 1993ko abenduaren 17koa eta gutxieneko irakaskuntzen ordutegiak eta oinarriko edukia aldatzen dituenak eta 808/1993, 809/1993, 810/1993, 811/1993, 812/1993, 813/1993, 814/1993, 815/1993, 816/1993, 817/1993 y 818/1993 Errege Dekretuetan, 1993-5-28 datakoak guztiak (1994-2-8 BOE) ezarritako tituluei dagozkien espazioak eta instalazioen gutxieneko baldintzak aldatzen dituenak (1994ko otsailaren 8ko 33. zk. BOE).

<sup>115</sup> Cit. 66. zk.

eranskinean prestakuntza-espazio eta –instalazioen gainean adieraziko betekizunak aipatzen dira.

Prestakuntza lantokietan (FCT) izeneko modulua 2. mailan egingo da. Enpresaren aukeren arabera egingo da. Edozein modutan, bigarren maila hasi aurreko 6 azken asteetan amaituko da modulua.

**1.2.2.4.15. Produktu Farmazeutikoen Fabrikazioko Teknikariaren titulua. 274/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko irailaren 24ko 115. zk. NAO)**

Foru Dekretu honek beste hauen babesa du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa, 35. art.<sup>110</sup>, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>111</sup>, eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculuma ezartzeko duten eskumenean.

Maiatzaren 28ko 816/1993 EDk<sup>112</sup> ezartzen du Produktu Farmazeutikoen fabrikazioko Teknikariaren titulua. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>113</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxienerako irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. EDk oinarritzko izaera du.

Abenduaren 17ko 2207/1993 EDk<sup>114</sup> aldatzen du maiatzaren 23ko 816/1993 ED, eta, aurrerantzean, gutxienerako irakaskuntzen oinarritzko ordutegiak eta edukiak ordezkatzeko dira, bai eta espazioek eta instalazioek bete beharreko gutxienerako betekizunak ere (berariazko eranskin batean adierazi dira).

Adierazitako gutziaren ondorioz, FDk titulua inskribatzen du, erdi-mailakotzat sailkatzen du eta Kimikako lanbide-arloan eta 1400 orduko iraupena ematen dio.

Tituluaren irakaskuntzak egituratzeko, produkzio-sistema eta I. eranskinean aipatutako helburuak, gaitasunak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak kontuan hartu dira. Zikloa osatzen duten moduluak aipatu dira.

II. eranskinean, modulu bakoitza eman behar duten irakasleen espezialitateak zehaztu dira, aipatutako oinarritzko araudi orokorraren arabera. Era berean, modulu profesionalak profesional espezialistek eman ditzaketela adierazten da, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan xedatzen den moduan<sup>115</sup>.

<sup>116</sup> Cit. 67. zk.

<sup>117</sup> Cit. 68. zk.

<sup>118</sup> Cit. 69. zk.

<sup>119</sup> Cit. 65. zk.

<sup>120</sup> Cit. 70. zk.



Zentroek autonomia dute irakaskuntzak garatzeko eta inguruko ezaugarrietara egokitzeko. Irakaskuntzak zikloko curriculum-proiektuan zehaztuko dira eta ikasleen beharrei erantzuteko izango dira.

Lanbide Modulusak	Lanbide Moduluak			
	Lanbide Modulusak	Iraupena	Asteko ordutegia	Maila
Kimika aplikatua	198	6	1	1
Prozesu kimikoaren zerbitzu gehigarriak	132	4	1	1
Prozesu farmazeutikoaren eragiketak	198	6	1	1
Produktu farmazeutikoaren dosifikazioa eta egokitzea	99	3	1	1
Antolamendua, segurtasuna eta giro kimikoa	132	4	1	1
Prozesu kimikoen instrumentazioa eta kontrola	132	4	1	1
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	99	3	1	1
Prestakuntza lantokietan	410	Lanaldian	2	2

Zentroetako sailen ardura izango da modulu profesionalen programazioak lantzea eta gutxienerako edukiak zehaztu dira.

Lanbide-profila eta tituluaren berezko gaitasun profesionala zehazten ditu. Lehen aipatutako oinarriko alderdiak eta elementuak ezartzen eta arautzen ditu halaber.

Irakaskuntzaren ebaluazioari dagokionez, martxoaren 5eko 362/2004 ED<sup>116</sup> eta urriaren 30eko ECD/2764/2002 MO aipatzen ditu<sup>117</sup>.

Tituluko irakaskuntzak egin ahal izateko baldintzak adierazten ditu. Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua dutenek eta martxoaren 5eko 362/2004 EDk adierazitako sarrera-proba gainditzen dutenek egin ditzakete aipatutako ikasketak.

Produktu Farmazeutikoaren Fabrikazioko Teknikariaren titulua lortuko dute zikloko modulu profesional guztietan ebaluazio positiboa lortzen duten ikasleek.

Lanerako lanbide-heziketarekin baliozkotu ahal diren modulu profesionalak zehaztu dira. Era berean, laneko praktikarekin bateragarriak izan daitezkeenak zehaztu dira.

Zikloko titulua duten pertsonen guztiek Batxilergoko ikasketa-modalitate guztietan ikasteko eskubidea aitortzen die.

251/1992 FD<sup>118</sup> eta 777/1998<sup>119</sup> ED, apirilaren 30ekoa, dira mota honetako irakaskuntzak ematen dituzten zentroak baimentzeko erreferentzia. Besteak beste, III.

<sup>121</sup> Cit. 60. zk.

<sup>122</sup> Cit. 37. zk.

<sup>123</sup> 818/1993 ED, maiatzaren 28koa eta Plastikoa eta kautxua Eraldatzeko Lanen Teknikariaren eta dagozkion gutxienerako irakaskuntzen titulua ezartzen duena (1993ko uztailaren 22ko 22. zk. BOE) 1716/1996 ED, uztailaren 12koa eta Plastikoa eta kautxua eraldatzeko lanen Teknikariaren titulua (1993ko uztailaren 22ko BOE).

<sup>124</sup> Cit. 63. zk.

<sup>125</sup> Cit. 114. zk.

eranskinean prestakuntza-espazio eta –instalazioen gainean adieraziko betekizunak aipatzen dira.

Otsailaren 13ko 35/1995 FDren<sup>120</sup> 7. artikuluari dagokionez, Prestakuntza lantokietan (FCT) izeneko moduluak 2. mailan egingo dela adierazten du. Berau egitea enpresen aukeretara baldintzatuta dago.

Hezkuntza Sailari ezarritako curriculumak helduen hezkuntzaren ezaugarrietara eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitze baimena ematen dio.

Sailak eskumena du zikloko moduluak osatzen dituzten ordutegiak aldatzeko, I. eranskineko 2.3 atalean adierazitakoari jarraituz, betiere arrazoi sendoak badaude eta gutxieneko ordutegiak betetzen badira.

Ikasketak egiteko baldintzak 8. artikuluan adierazitakoetatik desberdinak izan daitezke.

I. eranskineko 2.2 atala aldatzen du, “modulu profesionalen” iraupenari buruzkoa; modulu propioak eta 2.3 atala, “Ordutegiaren iraupena, sekuentzia eta banaketari” buruzkoa, ondoren adierazi den moduan:

***1.2.2.4.16. Plastikoa eta Kautxuaren Eraldaketa Lanen Teknikariaren tituluaren erdi-mailako Prestakuntza Zikloa. 275/2004 FD, abuztuaren 9koa (2004ko azaroaren 10eko 135. zk. NAO)***

Foru Dekretu honek beste hauen babesa du: 1/1990 LOren, urriaren 3koa eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzkoa, 35. art.<sup>121</sup>, 10/2002 LOren, abenduaren 23koa eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzkoa, 8. art.<sup>122</sup> Eta Hezkuntza Administrazioek dagokien lurraldeko curriculumak ezartzeko duten eskumenean.

Maiatzaren 28ko 818/1993 EDk<sup>123</sup> ezartzen du Plastikoa eta Kautxua fabrikatzeko Lanen Teknikariaren tituluak. Dekretu horrek 676/1993 EDn<sup>124</sup>, maiatzaren 7koa eta lanbide-heziketako tituluak eta dagozkien gutxieneko irakaskuntzak ezartzeko jarraibide orokorrak zehazten dituena, aipatzen du. EDk oinarritzko izaera du.

EDk, maiatzaren 7ko 676/1993 EDko 7. artikuluen arabera, profil profesionala eta tituluaren berezko gaitasun profesionala adierazteko beharra azpimarratzen du.

<sup>126</sup> Cit. 66. zk.

<sup>127</sup> Cit. 67. zk.

<sup>128</sup> Cit. 68. zk.

<sup>129</sup> Cit. 69. zk.

<sup>130</sup> Cit. 65. zk.

<sup>131</sup> 272/2003 FD, 03/7/28, lehen-mailako Hizkuntzen Irakaskuntza Espezializatuen Goi Zikloa antolatzen duena eta dagokion curriculumak zehazten duena (03/08/25, 108. zk. NAO).

Abenduaren 17ko 2207/1993 EDk<sup>125</sup> aldatzen du maiatzaren 23ko 816/1993 ED, eta, aurrerantzean, gutxieneko irakaskuntzen oinarriko ordutegiak eta edukiak ordezkatzeko dira, bai eta espazioek eta instalazioek bete beharreko gutxieneko betekizunak ere (berriazko eranskin batean adierazi dira).

Tituluaren ezarpen-esparrua Nafarroako Foru Erkidegoa da. Titulua erdi-mailakotzat sailkatu da du eta Kimikako lanbide-arloan eta 1400 orduko iraupena du.

II. eranskinean, modulu bakoitza eman behar duten irakasleen espezialitateak zehaztu dira aipatutako oinarriko araudi orokorraren arabera. Era berean, modulu profesionalak profesional espezialistek eman ditzaketela adierazten da, abuztuaren 2ko 260/1999 FDan xedatzen den moduan<sup>126</sup>.

Zentroek autonomia dute irakaskuntzak garatzeko eta inguruko ezaugarrietara egokitzeko. Irakaskuntzak zikloko curriculum-proiektuan zehaztuko dira eta ikasleen beharrei erantzuteko izango dira.

Zentroek autonomia dute irakaskuntzak garatzeko eta inguruko ezaugarrietara egokitzeko. Irakaskuntzak curriculum-proiektuan zehaztuko dira. Sailek landuko dituzte modulu profesionalen programazioak eta gutxieneko edukia zehaztu da. Irakaskuntzen ebaluazioa martxoaren 5eko 362/2004 EDn<sup>127</sup> eta urriaren 30eko ECD/24764/2002 OMn xedatutakora lotuko da<sup>128</sup>. Irakaskuntzak egin ahal izateko betekizunak adierazi dira Batxilergoko titulua dutenentzat eta martxoaren 5eko 362/2004 EDk adierazitako sarrera-proba gaintzen dutenentzat. Ikasketak egin ahal izateko mekanismo bereziak ere aipatu dira.

Lanerako lanbide-heziketarekin baliozkotu ahal diren modulu profesionalak zere-rendatu dira. Era berean, laneko praktikarekin bateragarriak izan daitezkeenak zere-rendatu dira.

251/1992 FD<sup>129</sup> eta 777/1998<sup>130</sup> ED, apirilaren 30ekoa, dira mota honetako irakaskuntzak ematen dituzten zentroak baimentzeko erreferentzia. Besteak beste, III. eranskinean prestakuntza-espazio eta instalazioen gainean adieraziko betekizunak aipatzen dira.

---

<sup>132</sup> 196/2001 FD, uztailaren 16koa eta Hizkuntzen Irakaskuntza Espezializatuen Oinarriko Zikloa antolatzen duena eta dagokion curriculum-a zehazten duena (01/8/31, 106. zk. NAO) 272/2003 FD, 03/7/28, lehen-mailako Hizkuntzen Irakaskuntza Espezializatuen Goi Zikloa antolatzen duena eta dagokion curriculum-a zehazten duena (03/08/25, 108. zk. NAO).

Prestakuntza lantokietan (FCT) izeneko modulua 2. mailan egingo da. Enpresaren aukeren arabera egingo da. Edozein modutan, bigarren maila hasi aurreko 6 azken asteetan amaituko da modulua.

***1.2.2.4.17. Hizkuntz Eskola Ofizialetan Goi-mailako Zikloko azterketa gainditzeko azterketaren definizioa. 164/2005 Ebaz., otsailaren 28koa (2005eko apirilaren 15eko 45. zk. NAO)***

2003ko uztailaren 28ko 272/2003 FDK<sup>131</sup> araututako Hizkuntzen irakaskuntza berezien goi-zikloko ziurtapena lortzeko, Hizkuntz Eskola Ofizial guztientzako komuna den proba bat gainditu behar da.

Sailak eskumen osoa du proba hau osatzen duten probak lantzeko eta garatzeko.

Ebazpenaren testuak proben formatua eta baldintzak onartu ditu.

Bi zati ditu probak. Lehenengoa idatzizkoa da. Idatzizko ulermena, entzumena eta idatzizko adierazpena. Deialdi bakar bat egingo da eta saio batean egingo da.

Bigarren zatia ahozkoa da eta ahozko adierazpena baloratuko da. Beste egun batean egingo da.

Izangaiak probaren zati guztietara aurkez daitezke, betiere 400 pertsona baino gehiago aurkezten ez badira. Kasu horretan, idatzizko proba gainditu beharko da lehenengo, ahozko probara aurkezteko ondoren.

Proba bakoitzari eta zati bakoitzari dagokienez, ebaluatu beharreko alderdiak, iraupena, testuen tipologia eta ariketen edukia adierazi dira.

***1.2.2.4.18. Hizkuntz Eskola Ofizialetan Oinarrizko mailako Zikloko azterketa gainditzeko azterketaren definizioa. 126/2005 Ebaz., otsailaren 24koa (2005eko apirilaren 13ko 44. zk. NAO)***

01/7/16196/2001 FDK<sup>132</sup> araututako Hizkuntzen irakaskuntza berezien oinarrizko zikloko ziurtapena lortzeko, Hizkuntz Eskola Ofizial guztientzako komuna den proba bat gainditu behar da. Sailak eskumena du proba lantzeko eta garatzeko arauak emateko.

<sup>133</sup> 617/1995 ED, apirilaren 21ekoa eta Musikako irakaskuntzen goi-mailako curriculumaren oinarrizko alderdiak ezartzen dituen eta ikasketa horietarako sarbide-proba arautzen duena (1995eko ekainaren 6ko BOE).

<sup>134</sup> 423/2002 FA, abuztuaren 27koa eta Nafarroako Foru Erkidegoko musikako irakaskuntzen goi-mailako curriculumara ezartzen duena (02-10-11 123. zk. NAO).

Ebazpenaren testuak probaren formatua eta baldintzak onartzen ditu. Bi zati izango ditu probak (idatzizkoa eta ahozkoa). Lehenengo proba gainditu beharko da bigarrena egiteko. Bi kasuetan, guztizko puntuazioaren % 65 lortu beharko da proba gainditzeko).

Proba bakoitzaren kasuan arauak proba gainditzeko egitura eta puntuazioa eta horiek zehazteko oinarrian hartzen dituen agiriak antolatzen ditu. Idatzizko probak 3 orduko iraupena edukiko du eta 15 minutukoa ahozkoak.

**1.2.2.4.19. Goi-zentroetan Musikako goi-mailako irakasgaiak arautzen eta ezartzen dira eta Pablo Sarasate Goi Kontserbatoriorako onartutakoen publizitatea egiten da. 461/05 Ebaz., maiatzaren 19koa (2005eko uztailaren 6ko 80. zk. NAO)**

617/95 EDk<sup>133</sup> eskumena ematen die autonomia-erkidegoei Musikako irakaskuntzen goi-mailako curriculuma ezartzeko. Aldi berean, curriculuma osatzeko EDn adierazitako ikasgaiekin erlaziorik ez duten bestelako irakasgaiak erabiltzeko eskumena ematen die.

423/02 FAn<sup>134</sup> definitzen da aukerako irakasgaien esanahia eta Hezkuntza Sailak edo zentroak berak ezarriko dituela esaten da, aipatutako EDn aitortutako autonomia pedagogikoaren eta antolamendu-mailako autonomiaren arabera. Aurretik, kasu honetan, Sailak onartu beharko ditu.

5 lan-saio egin dira Iruñan eta 4 lan-saio, berriz, Tuteran. Gainera, bien arteko lan-saio bat ere garatu da; lan-saio horretan, AENOR eta SAREKA enpresek kudeaketa-sistemaren barruko ikuskaritzei buruzko prestakuntza eskaini zuten. N1 sareko prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izan dute baita ere, hala nola “Investors in people” eta “Bezeroen asebetetze-maila neurtzea” izeneko saioetan.

Planteatutako asmoak eta horien betetze-maila ondorengo hau izan da:

Sarearen ikuspegiaren helburuak 2005eko ekainean	Betetze-maila	Balorazioa/Proposamena
Kudeaketa Sistemako prozesu guztiak diseinatu eta dokumentatu daude.	Eginda	Tuterako lau ikastetxeek eta Iruñako beste lauk egin dute. Beste batean prestatuta daude gehienbat. Beste bitan egoera ez da hain ona.
MP01 prozesutik MP05 prozesura, ezarrita eta ikuskatuta.	Eginda	Ikuskaritza gurutzatuak burutu zituzten ikastetxeetan, jasotako prestakuntzaren ondoren. Iruñako sareko ikastetxe batek ez zuen parte hartu. Balorazioa oso positiboa izan zen parte hartu zuten ikastetxe guztien artean.
MP06 prozesutik MP08 prozesura, 2005eko irailan ezartzeko prest	Burutzen	Prestatuta Tuterako sareko lau ikastetxeetan. Iruñako sarean egoera ondorengo hau da: 3 ikastetxe prestatuta, 2 ikastetxe abendurako, 1 ikasturtean zehar egiteko eta 2 zehaztu gabe.
Abiarazita ziurtagiria eskuratzeko kudeaketak.	Atzeratuta	Ez da inon egin, nahiz eta Tuterako sareko hiru ikastetxek eta Iruñako sareko beste hiru ikastetxek ziurtagiria eskuratzeko asmoa agertu duten.

Ebaluazioak agerian utzi du bi sareen egoera desberdina dela. Tuterako sarean maila nahiko homogeneoa dago. Aitzitik, Iruñako sarean maila nahiko heterogeneoa dago; lau ikastetxek maila oso aurreratua dute diseinuan eta ezarpenean; bi aurreratuta daude diseinuan baina zerbait atzeratuagoak ezarpenean; batek gabeziak ditu azken prozesuen diseinuan; beste baten egoera ez da baxua, datuak falta baitira; eta, azkenik, beste batek gabezia nabarmenak ditu, eta datorren ikasturterako maila txikiagora pasatzeko interesa adierazi dute.

Lanaren ebaluazioa oso positiboa izan da.

N3 sarea.

Iruñako sarean (N3P) eta Tuterako sarean (N3T) 6 bilera egin dira guztira. Funtszko helburua lortu da: heziketa-eskaintza eta irakaskuntza-ikaskuntza planifikatzeko prozesuak sistematizatzea eta ixtea, dokumentazioaren kudeaketa ezartzea, eta neurtzeko, aztertzeko eta hobetzeko oinarritzko prozesuak prestatzea (kontrolerako planak, prozesuen eta ikastaroen ikuskapena, SQR eta ezadostasunen kudeaketa), datorren ikasturtean ezartzeko.

Planteatutako asmoak eta horien betetze-maila ondorengo hau izan da:



2004/2005 ikasturterako asmoa	Betetze-maila	Egungo egoera
MP01en diseinua eta dokumentazioa osatzea, datoren ikasturteik aurrera sistematikoki ezartzeko.	Eginda	Irakaskuntza plangintzaren prozesu guztiak berrikusi eta beraztertu dira; ikastetxe gehienek estandarizatuta eta ezarrita dituzte.
MP02ren diseinua eta dokumentazioa osatzea, datoren ikasturteik aurrera sistematikoki ezartzeko	Eginda	Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesu guztiak berrikusi eta beraztertu dira; ikastetxe gehienek estandarizatuta eta ezarrita dituzte.
MP03 prozeduren diseinua eta dokumentazioa prestatzea: kontrolerako planak, ezadostasunak, ekintza zuzentzaileak, SQR, berrikuntza eta hobekuntza ekintzak, bezeroen asebetetze-maila neurtzea.	Eginda	Neurketari, azterketari eta hobekuntzari buruzko prestakuntza eskaini da. Ikastetxe gehienek prozesuak prestatu dituzte eta datorren ikasturtean ezarriko dituzte.
MP04 prozeduren diseinua eta dokumentazioa prestatzea: dokumentazioaren kudeaketa	Eginda	Sarearen hasiera bateko asmoen artean aurreikusita ez bazegoen ere, lantzeko beharra ikusi da, kudeaketa-sistema osoaren hobekuntzarako. Ikastetxe gehienek prestatu dituzten prozesuak, datorren ikasturtean ezarriko dituzte eta jadanik martxan dute dokumentazioaren kudeaketari buruzko datu-basea.
Politikarako eta estrategiarako funtsezko prozedurak osatzea: helburua, plan estrategikoa eta urteko plana.	Atzeratuta	MP05 azkeneko bileran bakarrik landu da, oso azaletik.
Sarean lan egitea talde bat bezala, esperientziak eta jokabide egokiak trukatu, eta esleitutako lanak egin.	Eginda	Tuterako sarean Irakaslearen Koaderno komuna prestatu da, eta ikastetxe batzuk FTPtik zintzilikatu dute dokumentazio guztia.

Lanaren ebaluazioa oso positiboa izan da.

N4 sarea.

Bi mailatako bakoitzak, euskarakoak eta gaztelaniakoak, 6 bilkura egin ditu guztira. Hasierako ikastaroan oinarritzko hiru gai landu dira: kalitate-kontzeptu orokorren inguruko prestakuntza, prozesu baten diseinuaren inguruko ikaskuntza eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen hobekuntzari buruzko hausnarketak.

Planteatutako asmoak eta horien betetze-maila ondorengo hau izan da:

2004/05 ikasturterako asmoa	Betetze-maila	Egungo egoera
Sarean parte hartzen dutenak hezkuntza eremuari aplikatutako kalitate-kudeaketarako sistemari buruzko oinarritzko kontzeptuen inguruko hastapenak.	Eginda	Parte hartzen duten ikastetxeetan oinarritzko kontzeptuen inguruko prestakuntza eskaini da, bereziki lehenengo bi saioetan, modu sistematikoan
Sarean lan egitea, talde gisa, gure ezagutzak elkar banatuz eta elkarri lagunduz.	Eginda	Ikastetxeek beren lan-metodoak eta esperientziak elkar banatu dituzte sarean eta dokumentazioa FTPtik zintzilikatu dute.
Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen diseinua eta dokumentazioa hastea.	Eginda	Sarean irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu guztiak landu dira, ikasgelako jarduerak izan ezik, eta ikastetxe bakoitzak bi prozesu ditu ibxita. Horrela, ikastetxeek datorren ikasturtean irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen hobekuntza osa dezaten nahikoa baliabide dituzte.
Ikastetxeak kalitate-sistemekin harremanetan hartzea sustatzea, sentsibilizazioaren eta irakasleen prestakuntzaren bidez, hobekuntza-taldeetan parte hartzea bultzatuz.	Atzeratuta	Ikastetxeetako irakasleen sentsibilizazioa urrian egingo da. Ikastetxeek datorren ikasturterako ikuspegia eta ekintza-plana prestatu dute, eta bertan osatuko dituzten hobekuntza-taldeak daude jasota.
Sareko ikastetxeek bezeroen asebetetze-maila neurtzeko hastapenak	Atzeratuta	Oraindik ez dira berrikusi asebetetze-mailari buruzko inkestak sareetan.

Lanaren ebaluazioa oso positiboa izan da.

## Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan kalitateko sistema ezartzearen esperientziaren azterketa

2004ko ekainean, KADINETeko sareetan parte hartutakoei, ikastetxetako zuzendaritza taldeko kide direnei, inkesta banatu zitzaizkien. Azterketaren helburua sare-

en prestakuntzako jardueretan azkeneko ikasturteetan gutxienez parte hartu zuten pertsonak bere funtzionamenduari buruz eta proiektu honek ikastetxeetan izan duen eragin edo oihartzunari buruz duten iritzia jasotzea zen.

Inkesta honetan 50 item, 0tik 10era bitarteko puntuazioa dutenak, eta 6 galdera ireki daude. Hauek guztiak sareen funtzionamendu eta partaideen itxaropenei buruzkoak dira. 45 inkesta bildu dira.

Guztira 114 inkesta jaso dira. Item bakoitzean gai horren inguruko erantzun-kopurua adierazi da.

Ondorio orokor azpimarragarriak ondorengo hauek dira:

- Proiektuak, oro har, balorazio nahiko positiboa izan du, eta, batez beste, 8,3ko balorazioa eskuratu du, nahiz eta itemetan zertxobait zehazten diren emaitzak.
- Batezbesteko balorazioek jarraikortasuna eta/edo nolabaiteko hobekuntza erakusten dute aurreko ikasturtean egindako inkestetan eskuratu ziren erantzunen aldean.
- Mailaka bereizitako erantzunek koherentzia handia erakusten dute erantzunei emandako puntuazio-mota desberdinekiko. Hala ere, N-1 mailako erantzunek batez bestekotik gora dauden puntuazioak islatzen dituzte, eta N-2 mailako erantzunek berriz, puntu bat txikiagoak izatera iristen diren balorazioak erakusten dituzte. N-3 mailako erantzunak dira batezbestekotik gertuen daudenak.
- N-4 mailakoei lehendabizikoz pasa zitzairen inkesta, eta maila horretako erantzunak oso koherenteak dira gainerakoekiko. Gainera, batezbestekotik oso gertu dauden balioak erakusten dituzte, proiektuaren, prestakuntzaren eta sareko lanaren balorazio orokorrari dagokienez. 12. itemetik aurrera, orduan hasten baitira ikastetxean kalitate-sistemak ezartzearen oihartzunari buruzko galderak, ia ez da erantzunik jaso, eta dauden erantzun urriek jaitsi egiten dute batezbestekoa.

## Sarea datuetan

### 2. koadroa

Ikastetxeetako kalitate-sarea datuetan, 1999-00 ikasturteetik 2004-05 ikasturtera						
Ikasturteak	1999-2000	2000-2001	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005
Ikastetxe parte-hartzaileak	16	15	31	35	31	52
Eskainitako prestakuntza-orduak	90	190	336	427	441	449
Parte hartu duen pertsona-kopurua	150	98	195	207	291	187
Jasotako prestakuntza orduak	3.730	3.690	7.843	7.710	9.578	7.029
Bilera-kopurua mailaka:						
N1	8	9	10	7	7	7
N2	8	9	9	4	6	6 + 5
N3			8	6	8	5 + 5
N4			8	6	7	
N4C						7
N4E						7
<b>Bilerak guztira</b>	<b>16</b>	<b>18</b>	<b>35</b>	<b>23</b>	<b>29</b>	<b>42</b>

Txosten honetako 3.4.3. atalean Irakasleen Prestakuntzarako Planean integratutako Kalitatearen Kudeaketarako Sistemak sustatzeko jarduerak biltzen dira.

Bestalde, hitzartutako ikastetxeek ondorengo sari hauek lortu dituzte:

**Brontzezko Zigilua**, kalitatearekiko erakutsi duten konpromisoagatik eta EFQM ereduaren ezarpen operatibo egokiagatik. Sari horiek Nafarroako Gobernuko Kalitatearen aldeko Fundazioak ematen ditu:

- 2003. urtea: Paz de Ziganda Ikastola eta Lizarra Ikastola.

### **ISO 9001-2000:**

- Iruñako “Ursulinas” Ikastetxea: 2003-2004 ikasturtea.
- Iruñako “Cardenal Larraona” Ikastetxea: 2004ko ekaina.
- Tuterako “La Anunciata” Ikastetxea: 2004ko ekaina.
- Lodosako “La Milagrosa” Ikastetxea: 2005-06-13.
- Iruñako “Santa Catalina Laboure” Ikastetxea: 2005-06-24.
- Burlatako “Amor de Dios” Ikastetxea: 2005-6-24.
- Iruñako “Santa Teresa” Ikastetxea: 2004-6-26.
- Tuterako “San Francisdo Javier” Ikastetxea: 2004-7-26.
- Aiegiko “Mater Dei” Ikastetxea: 2004-7-26.
- Lizarrako “Mater Dei-Puy-Anderaz” Ikastetxea: 2004-7-26.
- Lizarrako “Nuestra Señora del Puy” Ikastetxea: 2004-7-26.

### **ISO 2001:**

- Lizarrako “Santa Ana” Ikastetxea: 2004-7-16.

### **2004-2005 Kalitatearen Sari Nazionala:**

- San Cernin Ikastetxea.

### **Kalitate Europarreko Brontzezko Zigilua:**

- Iruñako “Santo Tomás” Ikastetxea: 2005-11-9.

### **Hezkuntzaren Eta Prestakuntzaren Arloko Bikaintasunaren Aitorpena:**

- Mutiloabeitiko “Luis Amigó” Ikastetxea, 2000. urtean.

### 3.3. Ikuskapena

#### 3.3.1. 2004-2005 ikasturteko Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren jarduerari buruzko txostena

Irailaren 13ko 365/1989 Foru Dekretuaren 9. artikuluekin bat etorriz, Eskola eta Lanbideko Irakaskuntzen Zuzendari Orokorraren maiatzaren 31ko 506/2005 ebazpenaren bidez (NAOn argitaratu gabea), Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuaren Urteko Plan Orokorra ezarri zen 2004-2005 ikasturterako. Plan horren edukiaren arabera, honako jarduketak hauek egin dira:

##### Helburu orokorrak:

- Ikuskapenak ikastetxeei, Hezkuntza Sailari eta hezkuntza-erkidego osoari eskaintzen dizkien zerbitzu desberdinen planifikazioa bermatzea.
- Ikuskapenak kontrolaren eta gainbegiratzearen eremuan egin beharreko jarduketak zehaztea.
- Ikuskatzaileek ikastetxeen, irakasleen eta programen ebaluazioan egin beharreko jarduketak ezartzea.
- Ikuskatzaileek Nafarroako Foru Erkidegoaren hezkuntza-sistema ebaluatzeko jarduketak ezartzea.
- Ikastetxeei aholkularitza eskaintzeko jarduketak identifikatzea.
- Hezkuntza administrazioari informazioa emateko jarduketak eta esku-hartze eremu komunak dituzten Hezkuntza Saileko beste zerbitzuekiko lankidetzan jarduteko jarduketak zehaztea.
- Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuen Zerbitzuko ildo estrategikoak eta esku-hartzeko eremu kritikoak ezartzea.
- Planaren jarduketak desberdinen zehaztapenean, inplementazioan eta hobekuntzan erantzukizunak zehaztea.
- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea, planaren helburuak lortzea bultzatzeko.
- Zerbitzuko kideen ezagupenak berritzeko eta hobetzeko jarduketak zehaztea, planean jasotako zerbitzuak ematerakoan kalitate eta bikaintasun mailetara iristeko helburuarekin.
- Ondorioak ateratzea eta proposamenak egitea, gauzatutako jardueren inguruko txostenak eta azterlanak prestatuz.

##### Berariazko helburuak:

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hizkuntzak ikasteko Murgiltze Programak arautzen dituen araudiaren aplikazioa gainbegiratzea.

- Emaiza Akademikoen Txosten Orokorra epe barruan prestatzea, eta ikastetxeetara emaitzen txosten automatizatuak igortzea.
- 2004ko hautapen-prozesuetan parte hartu zuten Bigarren Hezkuntzako irakasleen %100 eta 2003ko hautapen-prozesuetatik oraindik ebaluatu gabe daudenak ebaluatzea.
- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan I ereduaren ezarpen esperimentalaren ebaluazioaren emaitzak aurkeztea.
- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntzako edukiak indartzeko programa berritzailearen jarraipena aztertzea, Bigarren Hezkuntzan aplikatzeko.
- Sailak Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetako eskola-jazarpenari (Bulling) buruz sortu duen lan-taldean parte hartzea.
- Lehen Hezkuntzako Atlante proiektuaren batzordean parte hartzea.
- Sailak DBHko ebaluazioa, sustapena eta titulazioa aztertzeke sortu duen lantaldean parte hartzea.

Urteko Planak Ikuskapenak 2004/2005 ikasturterako zein garapen-estrategia lehenetsiko zituen zehaztu zuen, eremu kritikoak edo eragin bereziko arloak identifikatuz. Horietako bakoitzean erdietsi beharreko emaitzak zehaztu ziren, urteko helburu kuantifikagarriak ezarri ziren, eta lanaren xede izan behar zuten prozesuak edo proiektuak, jarraipenaren adierazleak eta kudeaketaren ardura-dunak zehaztu ziren.

Aurreikusitako zerbitzuak prozesu elkartuak burutuz eskaini ziren. Prozesuak zerbitzuen zehaztapena eta diseinua, tenporalizazioa, egitekoen eta erantzukizunen esleipena, txostenen prestatzea eta ikuskapen-bisitak egitea eta zerbitzuak eskaintzeko prozesuak haratzea errazten duten planifikazio-prozesuetan antolatu ziren. Horiek zazpi prozesu handitan taldekatu ziren:

1. Kontrolatzea eta gainbegiratzea.
2. Ikastetxeak, irakasleak eta programak ebaluatzea.
3. Sistema eta adierazleak ebaluatzea.
4. Ikastetxeei aholkularitza ematea.
5. Hezkuntza Administrazioari informazioa ematea eta lankidetzan jardutea.
6. Eskolatzeta.
7. Langileriak zehaztea eta baliabideak aurreikustea.

Ezinbestekoa da aurreikusitako plana egoki bete dela adieraztea, kontuan izanik Erakunde Prestakuntzari dagokion alorrean lau urteko planaren lehenengo garapen-urtea izateak eragin dituen mugak.

### 3.3.2. Prestakuntza eta Hobekuntza Plana

#### 2004ko iraila – 2005eko ekaina

#### 3. koadroa

Prestakuntza eta Hobekuntza Nafarroako Ikuskapen Zerbitzuan, 2004ko iraila –2005eko ekaina			
Jardueraren antolatzailea	Jardueraren izendapena	Ikuskatzaile kopurua	Ordu kopurua Zuzenekoak
Ikuskapen Zerbitzua	PISA ebaluazioa	22	5
Euskal Herriko Ikuskapena	Ikuskapenaren antolaketa eta funtzionamendua	22	4
IVEI	PISA ebaluazioa	22	4
INECSE	INECSEren helburuak eta planak	22	3
Gaztela-Mantxako Ikuskapena	Ebaluazio proiektuak	22	4
	<b>Guztira</b>	<b>110</b>	<b>20</b>

#### 4. koadroa

Ikuskapenaren plantillaren bilakaera, 1999-00 ikasturtetik 2004-2005 ikasturtera					
Ikasturtea	1999/00	2001/02	2002/03	2003/04	2004/05
Lanpostuak	20	22	23	23	23
Beteta	16	20	20	21	23

Azken sei urtetan lehendabizikoz Ikuskapenaren plantila osoa erabat dago beteta.

## 3.4. Orientazioa

### 3.4.1. Orientatzaileak Ikastetxe Publikoetan

#### 5. koadroa

Ikastetxe Publikoetako orientatzaile kopuruaren bilakaera					
Ikasturtea	1999/00	2001/02	2002/03	2003/04	2004/05
Orientatzaileak	107	109	108	111	116

Iturria: Eskolaren Antolamendurako eta Berrikuntzarako Zerbitzua.

Hezkuntza sarean eskuragarri dauden orientatzaile-kopurua areagotzeko prozesuarekin jarraitzen da. Urte honetan orientatzaileen plantila %4,5 areagotu da.

## 6. koadroa

Ikastetxe Publikoetako Orientatzaileen Banaketa. 2004/2005 Ikasturtea				
Eremua	Bigarren Hezkuntzako Institutua	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa	Orotara
Iruñea	30	1	20	51
Lizarra	5	3	4	12
Tafalla	9	1	4	14
Irurtzun	5	1	3	9
Tutera	11	2	4	17
Elizondo	4	1	2	7
Zangoza	1	3	2	7
<b>Orotara</b>	<b>65</b>	<b>12</b>	<b>39</b>	<b>116</b>
<b>Orientatzaileak CREENAn</b>				<b>Orotara</b>
Ikusmenekoak				1
Entzumenekoak				1
Mugimenekoak				1
Lehen Hezkuntzako Psikikoak				2
Bigarren Hezkuntzako Psikikoak				1
Euskarazko Psikikoak				1
Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak				2
CREENA Tuteran				1
<b>Orotara</b>				<b>10</b>
<b>Orientatzaileak Eskola Orientazioko U.T.n</b>				
Negoziatuko Buruzagitza				1
Aholkulari Teknikoa				1
Elkarbizitzako Aholkularitza				1
<b>Orotara</b>				<b>3</b>
<b>Orientatzaileak orotara</b>				
Ikastetxeentzako Zuzeneko Arreta				116
CREENA				10
Orientazioko Negoziatua				3
<b>Orotara</b>				<b>129</b>

Iturria: Eskolaren Antolamendurako eta Berrikuntzarako Zerbitzua.

## 3.4.2. Orientatzaileak itunpeko ikastetxeetan

## 7. koadroa

Orientazioa Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetan, 2001-02 ikasturtetik 2004-05 ikasturtera								
Hezkuntza maila	2001/2002 ikasturtea		2002/2003 ikasturtea		2003/2004 ikasturtea		2004/2005 <sup>142</sup> ikasturtea	
	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua	Ikastetxe kopurua	Ordu kopurua
Lehen Hezkuntza	45	537	45	534	45	499	44	501
Bigarren Hezkuntza (DBH, Batxilergoa)	37	453	54	444	39	452	38	442
Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak	5	66	9	68	5	68	6	69
<b>Orotara</b>	<b>*</b>	<b>1.056</b>	<b>*</b>	<b>1.046</b>	<b>*</b>	<b>1.019</b>	<b>*</b>	<b>1.012</b>

\*Ikastetxe guztiak ez daude islatuta, hauekiko batzuek irakaskuntza berberak dituztelako (D.B.H., Batxilergoa, L.H. eta L.H.P.).

Iturria: Zentroen eta Ikastetxetarako Laguntzen Zerbitzua.

<sup>142</sup> Ez da barne hartzen Baztan Ikastola, udal jabetzakoa baita. Desagertu egiten da San Agustin ikastetxea (Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa). FP Prestakuntza Politeknikorako Ikastetxea agertzen da.

Orientazioari aplikagarri zaizkion orduen kopurua murriztu egin da pixkanaka. Serieari dagokion aldian, horien %4,16 murriztu dira.

### 3.5. Eskolako antolaketa eta berrikuntza. PEI

#### 8. koadroa

**Irakasleen Prestakuntza Jardueretarako aurrekontuan sartutako gastua, 2000. urtetik 2005. urtera arte**  
(eurotan)

	2000. urtea	2002. urtea	2003. urtea	2004. urtea	2005. urtea
Irakasleen prestakuntzarako jarduerak (Prestakuntzako Programa Orokorrak)	506.052	558.941	558.941	558.941 <sup>143</sup>	516.941
Hezkuntza Berrikuntzako Programak / Berrikuntza	183.910	171.889	123.245	150.000	63.000
Irakasleak hizkuntzen inguruan prestatzea (Irakasleak Hizkuntza Modernoetan birziklitzeko programak)	150.253	101.799	42.297	58.000	38.000
Lanbide Heziketako irakasleak hobetzea eta eguneratzea (Irakasleak Lanbide Heziketan birziklitzeko programak)	155.061	155.061	135.061	138.600	131.371
Euskarako irakasleak hobetzea (Irakasleak euskararen birziklitzeko programak)	73.924	55.652	55.652	54.545	53.700
Irakasleen urrutiko prestakuntza (Teknologia Berrien Programak)	243.410	420.708	420.708	255.000	210.100
Argitalpenak, ikerketak eta esperientziak	150.253	150.253	130.235	214.000	150.000
<b>Orotara</b>	<b>1.462.863</b>	<b>1.614.303</b>	<b>1.466.139</b>	<b>1.429.086</b>	<b>1.163.112</b>

Iturria: Eskolaren Antolamendurako Zerbitzua.

#### 9. koadroa

**Irakasleen Prestakuntzako Programen Laburpena, 2000. ikasturteetik 2005. ikasturtera**

	Jarduera-kopurua	Ordu-kopurua	Ziurtagiri kopurua	Aurrekontua (milaka eurotan)
2000	471	10.520	5.234	1.463
2002	555	13.429	7.544	1.614
2003	335	10.492	5.111	1.466
2004	388	9.964	5.428	1.423
2005	431	10.330	5.438	1.163

Iturria: Eskolako Antolakuntza eta Berrikuntza Zerbitzua, Hezkuntza Saila.

<sup>143</sup> 2003-2004 ikasturteko txostenean 553.353 euroko zenbatekoa agertzen zen. Datu hori datu egoikiarekin zuzentzen da.



### 3.5.1. Irakasleen Prestakuntzako Urteko Plana, 2004/2005 ikasturtea

Irakasleen prestakuntzako urteko plana, 2004-2005 ikasturterakoa, abuztuaren 23ko 226/2004 Foru Aginduak onetsi zuen<sup>144</sup>.

#### 3.5.1.1. Helburuak, jarduteko ildoak, modalitateak

##### Helburu orokorrak:

Jarraian adierazten diren helburuek Hezkuntza Sailak Prestakuntza Planaren proposamenen atzean dagoen esku-hartze ereduaren ezaugarri nagusiei buruz duen ikuspegia adierazten dute. Ondorengo termino hauetan zehazten dira:

1. Ikastetxeetan eta Hezkuntza Zerbitzuetan Kalitatearen Kudeaketarako Sistemak bultzatzea eta hedatzea sustatzea.
2. Taldeko lanaren kultura bultzatzea, auto-ikaskuntza, erabakiak eta akordioak guztion artean hartzea eta jardunbide profesional egokiak trukatzeko sustatzea.
3. Curriculum alderdi eta heziketa eremu desberdinetan ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuetan esku-hartzea eta horiek hobetzea ahalbidetzen duten estrategiak, metodologiak eta antolamenduak hedatzea.
4. Harreraranzko, elkarbizitzaranzko eta aniztasunaren arretaranzko sentsibilizazio-prozesuak bultzatzea, diferentzia pertsonalak eta kulturalak elementu aberasgarri gisa antzematea lortzeko.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) bultzatzen jarraitzea, informaziorako eta curriculumerako sarbideak errazteko tresna gisa.

Irakasleei prestakuntza balioanitztea eta malguta eskaintzea, Lanbide Heziketaren eremuan eduki berritzaileetara egokitzea ahalbidetzeko.

Prestakuntza iraunkorreko prozesuak ebaluatzeko prozedurak eta estrategiak ezartzea, horien egokitasuna eta irakasleen heziketa-praktikarako transferentzia-maila kontrastatzeko helburuarekin.

##### Jarduteko ildoak:

1. Gure Erkidegoko Ikastetxeetan eta Hezkuntza Zerbitzuetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemen sustapena babestea<sup>145</sup>.

<sup>144</sup> Agindu hori ez da argitaratu. Datuak Hezkuntza Sailak argitaratu duen "Irakasleen Prestakuntza Plana" izeneko koadernotxotik hartu dira (Sailaren web orrian ere agertzen dira).

<sup>145</sup> Ikus I.kapituluko 3.4.2 eta 3.2.4.1 epigrafeak.

- UNE-EN ISO 9001 Arauan ziurtatutako Zuzendaritza Taldeak eta Hobekuntza Taldeak prestatzea.
  - Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Hobekuntza Taldeen prestakuntza.
  - Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan Zuzendaritza Taldeak prestatzea, eta Hezkuntza Zerbitzuak Hobetzea.
2. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculum arlo desberdinetan ikasleek dituzten oinarrizko eskumenak hobetzeko irakasleei zuzendutako prestakuntza ekintzen proposamena.
- Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren, matematiken eta zientzien arloetan oinarrizko gaitasunak hobetzeko prestakuntza.
3. Erdi-presentzialak diren on-line prestakuntza-jarduerak diseinatzea, abiaraztea eta ebaluatzea, curriculum eremu eta prestakuntza arlo desberdinetara aplikatutako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiliz.

Prestakuntza plana, Nafarroako Foru Erkidegoko Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrerako sarearen sorrera, egitura eta antolaketa arautzen zuen ekainaren 17ko 245/1996 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera (1996ko ekainaren 21eko NAO), Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrerako Sarearen bidez gauzatu da, eta sare horren funtsezko elementuak dira Irakasleen Laguntzarako Zentroak.

ILZk, Plan honetan jasotako jarduerak garatzearen erantzule izateaz gain, laguntza zerbitzua eskaintzen diete beren eraginpeko eremuko ikastetxeei.

Plana gauzatzeko funtsezko baldintza izan da ikastetxeen eta ILZen artean lankidetzarako eta komunikaziorako bide eraginkorrak mantentzea. Lizarrako, Lekarozko eta Tafallako ILZk beren zonaldeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskaintzen dute arreta funtsean; bitartean, Iruñako eta Tuterako ILZk hezkuntza-urrats guztietako ikastetxeak eta aurreko hiru ILZ desberdinen zonaldeetako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak hartzen dituzte. Hala ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako urratsetan espezializatutako zonaldeetako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ILZ horietara jo dute, gutxienez, Gai Orokorrekin, Teknologia Berriekin eta baliabide didaktikoen maileguarekin zerikusia duen orotarako.

Ikastetxe bakoitzak bere Prestakuntza Plan propioa eratzen du, bere behar propioen azterketa zorrotzetik abiatuz.

### **Prestakuntzako modalitateak:**

Irakaskuntzako taldeak, zalantzarik gabe, oso egoera desberdinetan aurkitzen dira, eta horiek erantzun desberdinak behar dituzte baita ere. Horregatik, presta-

kuntzako modalitate desberdinak eskaintzen dira, prestakuntza ahalik eta eraginkorrena izatea bermatzeko, bai atzemandako beharretara doitzeko gaitasunagatik eta baita ikastetxe bakoitzari bere heziketa-ibilbide propioa prestatzeko aukera ematen diolako.

Plana ondorengo modalitate hauen arabera garatu da:

#### 1. Ikastetxei aholkularitza ematea.

Honen bidez, irakasle-taldeak lagundu nahi dira curriculum garapenerako prozesuetan: programazio didaktikoen prestakuntza, garapena eta ebaluazioa; ikasgelan prestakuntza jardueretatik edo material didaktikoetatik sortutako proposamenak aplikatzea. Egoera horiei erantzuteko, modalitate hau hezkuntza maila eta curriculum arlo guztietan eskaintzen da.

Bere izaera irekia dela kausa, planak ezin du jardueraren aurretiazko antolaketa proposatu, baina horiek gauzatzeko prozesua aurreikusten du.

#### 2. Prestakuntza moduluak.

Ikastetxe, etapa, sail edota zikloko irakasle-taldeei zuzenduta dago. Arloetan landinamika bat abiaraztea ahalbidetzen du, programazio didaktikoaren diseinua-rentzat eta garapenarentzat funtsezkoak diren alderdi batean sakontzea ahalbidetzen du, eta lan-modu zehatz batekiko sentsibilizatzea ahalbidetzen du. Bere edukia, funtsean, arlo bateko alderdi espezifikoek edo psikopedagogi izaerako kontu orokorrek osatzen dute.

Modulu bat garatu ahal izateko gutxieneko irakasle-kopurua talde ertain bati dagokiona da, hots, hamar pertsona ingurukoa. Horiek ez dira zertan ikastetxe berekoak izan behar: Kopuru horri esker, moduluan lantzen diren edukien aplikazio praktikoa gauzatu ahal izan da, edo landutako gaiak azterlanaren bidez sakontzea ahalbidetu da.

#### 3. Mintegiak.

Funtsezko helburua da irakasle kopuru handiei zuzendutako hobekuntza-markoa izatea. Aldi teoriko bat ematen da, kanpoko aholkularitzan oinarritutakoa, eta beste alde praktiko bat, ikasgelan aplikatutakoa. Ondoko hauek ditu xede:

- Jardunbide profesionalarekin zerikusia duten edukiak aztertzea eta lankidetzan garatutako lana sustatzea.
- Zenbait hezkuntza gaien inguruko prestakuntza eguneratzea, esperientziak trukatzeko eta barruko eztabaida sustatzea dira laneko prozedura arruntak.
- Mintegia osatzen dutenek formulatutako lan-proposamenak garatzea.

#### 4. Lantaldeak.

Bertan gutxienez hiru irakasle sartu dira (irakasle hauek ez dira ezinbestean ikastetxe edo hezkuntzako maila berekoak izan behar), eta curriculumeko ma-

terialen prestaketarekin edo gai berezien tratamendu didaktikoarekin lotutako gai komuna lantzen dute. Taldeak ILZren irizpenera jartzen duen lan-plan bat prestatzen du.

#### 5. Zientzia eta didaktika eguneratzeko ikastaroak.

Irakasleei banaka zuzenduta daude irakaskuntza/ikaskuntzako prozesuekin zerkusia duten oinarrizko ezagutza zientifikoak areagotzeko edo eguneratzeko. Alderdi horiek ez dira nahitaez lotuta egon behar curriculum arlo bateko berezkoekin.

#### 6. Bestelako modalitateak.

Ondoko hauek diseinatu dira: mintegiak ikastetxean, informazio-bilkurak, jardunaldiak, ibilbideak, elkarrizketa-taldeak, berrikuntzako proiektuak eta koordinazio-mintegiak.

Aurreko planari dagokionez, berrikuntza gisa, ikastetxeetako mintegiak eta koordinazio-mintegiak daude.

Ikastetxeetako mintegiak xedetzat ikastetxe batetako irakaskuntza-talde desberdinak ikastetxeak berak prestatuntza komunerako gai gisa zehaztutako curriculum alderdi horiek lantzeko xedez integratzeko helburuarekin planifikatutako jarduerak dira.

Koordinazio-mintegiak landa-inguruneko ikastetxeetara, ikastetxe txikietara edo beren espezialitatea dela-eta ikasgelako jarduerak koordinatzeko xedez al-dizka bildu behar diren profesionaleri xedatutako jarduerak dira.

### 3.5.1.2. Prestakuntza Planaren Ebaluazioa

Prestakuntza Planaren ebaluazioa da bere funtsezko elementuetako bat; izan ere, erabilitako diseinuen eta garatutako prestakuntza-jardueraren ezaugarrien arabera, Planaren osaera hobetu daitezke.

Ondorengo helburu hauek ditu:

- Kritikoki ezagutzea nola planifikatzen den eta gauzatzen den irakasleen prestakuntza, eta zein diren eskuratutako emaitzak.
- Edozein prestakuntza jardueratako programa bat garatzen den bitartean sortzen den barne-dinamika ulertzea, horren jarraipen egokia egiteko.
- Prestakuntzak heziketa praktikaren antolaketan eta burutzapenean duen eragina baloratzea.
- Irizpide kontrastatuetan oinarritutako programak doitu ahal izateko erabakiak hartzea.

Ebaluazio-prozesuan funtzio espezializatuak izanik Prestakuntza Planaren plangintzan eta garapenean inplikaturako guztiek parte hartu zuten.

Prozesuak parte-hartzaile guztiak integratu zituen, Prestakuntza Sarea osatzen duten pertzepzioa hartzaileen pertzepzioarekin eta ikastetxeetan eragin zuzena duten Hezkuntza Administrazioaren zerbitzuetako beste arduradunen pertzepzioarekin kontrastatzeko.

## 10. koadroa

**Irakasleen Prestakuntza Planaren ebaluazioaren planifikazioa, 2004-2005 ikasturtea**  
**Ebaluazioaren zergatia eta zertarakoa**  
**Ebaluazioaren helburuak**

Ebaluazioaren xedeak	Nork	Nola
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntzako jarduerak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle parte-hartzaileak</li> <li>• Ikastetxeko Pedagogi Koordinazioko Batzordea</li> <li>• Prestakuntzako Aholkulariak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluazioko protokoloak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza Planaren planifikazio eta garapena:               <ul style="list-style-type: none"> <li>– Prestakuntzako premiak</li> <li>– Edukiak eta modalitateak prestakuntzaren helburuetara doitzea</li> <li>– Planaren garapen baldintzak</li> <li>– Irakasleen eta ikastetxeen inplikazioa</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluaziorako Jarraipeneko Batzorde Teknikoak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>– ILZetako Pedagogi Lantaldea</li> <li>– Ikuskapena</li> <li>– Orientazioa</li> </ul> </li> <li>• ILZko Pedagogi Lantaldea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batzorde Teknikoen lanerako plana</li> <li>• Galdesortak</li> <li>• Jarraipeneko Batzorde Teknikoen txostenak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebaluazio Plana:               <ul style="list-style-type: none"> <li>– Eskuratutako datuen garrantzia</li> <li>– Prozesuaren diseinua</li> <li>– Arduradunen jarduketak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarraipeneko Batzorde Teknikoa</li> <li>• ILZetako Pedagogi Lantaldea</li> <li>• Prestakuntza Atala</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ILZn Planaren garapenaren ebaluazioa egiteko lanerako plana</li> <li>• Beharrianak topatzea</li> <li>• Prozesuaren berrikuspenua eta emaitzak aztertzea</li> </ul>

### 3.5.1.3. Planaren bestelako aurreikuspenak

Planaren iritzi, prestakuntza irakasleen eskubidea izateaz gain betebeharra ere bada; kalitate-faktore bat da eta hezkuntza sistemaren beraren behar bat ere bada. Ondorioz, Planak hori gauzatu ahal izateko zenbait neurri hartzen ditu.

Aurreikusitako kontuak ondoko hauekin lotuta daude:

- ikastetxeak bere prestakuntzako urteko planak zehazteko arduradun gisa antolatzea, irakaskuntza-taldeen prestakuntza-beharren eta irakasleen behar pertsonalen arabera;
- prestakuntza jarduerak, beharrezkoak diren baimenekin, eskola-ordutegian gauzatzea ahalbidetzen duten prestakuntza-ordutegiak;
- Sailean eta planean sartuta ez dauden erakundeek antolatutako jardueren finantzaketa (banakako laguntzak eta ikasketak egiteko lizentziak);
- jarduerak ziurtatzeko prozesuak eta eskakizunak, Planak adierazten dituen aurreikuspen berdinen arabera;

- izen-emateko eta eskabidea egiteko mekanismoak; prestakuntzako aparte-ko egoeretarako edo jarduerak etenda daudeneko neurri bereziak baimentzea.

ILZe Planean aurreikusi gabe dauden ekintzak baloratzeko eta burutzeko baime-na ematea ere aurreikusi da.

### 3.5.1.4. Planean jasota ez dauden jardueretarako laguntzak

#### 3.5.1.4.1. Banakako laguntzak

Prestakuntza Planen barruan antzeko jarduerak ez dituzten prestakuntza-ekintza horietara joatea ahalbidetzen dute. Helburu horrekin, Irakasleen Prestakuntzarako Jardueretarako Banakako Laguntza Ekonomikoen 2004/2005 ikasturterako deialdi publikoa onetsi zen, abenduaren 1eko 340/2004 Foru Aginduaren<sup>146</sup> bidez. Jardue- ra horiek unibertsitatekoak ez diren eta zerbitzuak ikastetxe publikoetan nahiz pri- batu itunduetan ematen dituzten araubide orokorreko nahiz bereziko irakaskun- tza-maila guztietako irakasleei zuzenduta daude.

Deialdiak bi modalitate eskaintzen ditu:

- Espainian egiten diren jarduerak: gehieneko laguntza 541 eurokoa.
- Atzerrian egiten diren jarduerak: gehieneko laguntza 962 eurokoa.

## II. koadroa

Prestakuntzako jardueretarako emandako banakako laguntzak, 1999-00 ikasturtetik 2004-05 ikasturtera (eurotan)

Eskabideak	1999/00 ikasturtea	2001/02 ikasturtea	2002/03 ikasturtea	2003/04 ikasturtea	2004/05 ikasturtea
Emandakoak	81	62	188	55	37
Behin-behineko emandakoak	-	-	-	11	7
Ukatutakoak	7	25	15	13	4
Behin-behineko ukatutakoak	-	-	4	-	n.d.
<b>Adjudikazioa Orotara</b>	<b>21.277</b>	<b>17.312</b>	<b>18.718</b>	<b>19.901</b>	<b>z.g.</b>

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntzako Zerbitzua.

#### 3.5.1.4.2. Ikasketak egiteko lizentziak

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren apirilaren 22ko 98/2004 Foru Aginduaren bidez 2004/2005 ikasturterako Ikasketak egiteko zortzi Lizentzia deitu ziren, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailera atxikitako langile finkoentzat<sup>147</sup>.

<sup>146</sup> Ikus 91. zk., I.1.4.5. epigrafea, I. kapitulua.

<sup>147</sup> NAO 57. zk., 2004-05-12.

2004/05 ikasturterako lizentzia horiek ondorengo modalitate hauetan deitu dira, dagozkien lizentzia-kopuruarekin batera:

A modalitatea: 4 lizentzia, ikasketa akademikoak amaitzeko:

- A.1. Bi lizentzia: Lizentziatura, Ingeniaritza, Ingeniaritza Tekniko, Arkitektura, Arkitektura Teknikoko azken kurtsoa, edo azken kurtsoa bi ikasgai gainditu gabe gehienez dituztela.
- A.2. Lizentzia bat: Doktorego Tesia.
- A.3. Lizentzia bat: Masterra.

B Modalitatea: 4 lizentzia

- Balioen inguruko hezkuntzari, proposamen metodologikoei eta antolaketa proposamenei, aniztasunaren arretari eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) aplikazio didaktikoari buruzko Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak.

Abuztuaren 23an Hezkuntza Kontseilariak emandako 225/2004 Foru Aginduaren bidez, zortzi lizentzia eman ziren, 2004-05 ikasturtean ikasketak egiteko. Lizentzia horiek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailari atxikitako langile finkoei zuzentzen zaizkie<sup>148</sup>.

Ondorengo laguntza hauek eman ziren:

- A.1: laguntza bat.
- A.2: bi laguntza.
- A.3: laguntza bat.
- B: lau laguntza.

A.1: Lizentziatura, Ingeniaritza, Ingeniaritza Tekniko, Arkitektura, Arkitektura Teknikoko azken kurtsoa, edo azken kurtsoa bi ikasgai gainditu gabe gehienez dituztela.

A.2: Doktorego Tesia.

B: Unibertsitateek abalaturako Hezkuntza Ikerketarako Proiektuak.

<sup>148</sup> Ikus 90. zk., I.1.4.5. epigrafea, I. kapitulua.

### 3.5.2. Garatutako prestakuntza jarduerari buruzko datuak

#### 12. koadroa

Irakasleen Prestakuntzako Programak, 2004/2005

	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	OROTARA
Haur Hezkuntza	3	5	16	6	9	39
Lehen Hezkuntza	2	5	21	5	9	42
Bigarren Hezkuntza	1	1	42	0	9	53
Lanbide Heziketa	0	0	30	0	0	30
Mailen artekoa	7	12	37	2	9	67
Helduen Hezkuntza	0	0	3	0	1	4
Hezkuntza Berezia	0	1	6	1	0	8
Teknologia Berriak	4	2	12	6	6	30
Programa Bereziak <sup>149</sup>	1	1	23	1	1	27
Araubide Bereziko Irakaskuntza <sup>150</sup>	0	0	9	0	0	9
ILZren jarduerak	15	7	78	12	10	122
<b>Orotara</b>	<b>33</b>	<b>31</b>	<b>277</b>	<b>33</b>	<b>54</b>	<b>431</b>
<b>Prestakuntza orduak orotara</b>	<b>852</b>	<b>413</b>	<b>7.017</b>	<b>764</b>	<b>1.284</b>	<b>10.330</b>
<b>Parte-hartzaileak</b>	<b>552</b>	<b>291</b>	<b>5.209</b>	<b>515</b>	<b>832</b>	<b>7.399</b>
<b>Ziurtapen kopurua<sup>151</sup></b>	<b>269</b>	<b>179</b>	<b>4.150</b>	<b>314</b>	<b>526</b>	<b>5.438</b>

Iturria: Hezkuntza Saileko Eskolako Antolaketa eta Berrikuntzarako Zerbitzua.

Oharra: 2000-01 ikasturteetik 2003-04 ikasturtera bitarteko datu bereziak Nafarroako Hezkuntza Sistemako txostenen argitalpenean kontsulta daitezke.

#### 3.5.2.1. Haur Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

Haur Hezkuntzako 2004-05 ikasturteko Prestakuntza Planak hezkuntza urrats horretako irakasle-taldeek beren lanbideari aurre egiteko laguntza anitzak bilatzea ahalbidetzeko xedez diseinatutako prestakuntza jarduerak proposatu zituen, ondorengo ardatz hauen arabera:

1. Aurreko ikasturteetan zehar abiarazitako ibilbideetan sakontzeko edo aurrera egiteko jarduerak, hastapen-jarduerak osatzeko. Irakasle-taldeak eskola-jarduerara komunarekiko koherentzia lortzeko prestakuntza-jarduerara komunak. Informatika eta ikus-entzunezko bitartekoak ikasgela guztietan erabiltzeko oinarriko elementu izan daitezten prestakuntza-jarduerak.
2. Proposatutako helburu didaktikoak argitzeko beharrezkoak diren prestakuntza-proiektuei erantzuteko ikasgelako programazioak.
3. Egiteko zehatzetatik abiatuz irakasle-taldeak prestakuntza-jarduerara berean integrazten dituzten proiektuen eta jardueren araberrako plangintza-jarduerak.

<sup>149</sup> Berariazko Programen atalak ondorengo hauei buruzko jarduerak biltzen ditu: berariazko programak, kultur aniztasuna, zuzendaritza-taldeen prestakuntza, eskolako orientazioa, balioetan hezteak, laneko osasuna (arriskuen prebentzioa) eta eskolako liburutegiak.

<sup>150</sup> Beren prestakuntza amaitu duten irakasle partehartzaileak.

<sup>151</sup> Kontserbatorioei, dantza-eskolei, musika-eskolei eta hizkuntza-eskolei zuzendutako programak bane.



4. Hizkuntza-gaitasunen garapena, bai ahozko hizkuntzari dagokionez eta baita idatzizko hizkuntzari dagokionez ere.
5. Matematikari eta gaitasun zientifikoen garapenari arreta eskaintzea.
6. Eremu artistikoa, ikus-hezkuntzatik eta plastikatik, dramatizaziotik, gorputz-adierazpenetik edota musikatik abiatuta.
7. Emozioen eta afektuen munduari arreta eskaintzea, jakintza kontzeptuala pertsonaren mundu emozionalaren eta afektiboaren garapen doitu batean oinarritzen baita, eta horren mende baitago.

Prestakuntza-plana Nafarroako edozein aldetako ikastetxe guztietako irakasle orok bere lankideekin topo egiteko gune bat aurkitzea ahalbidetzeko diseinatu da.

Prestakuntza-jarduerak ondorengo taula honetan biltzen dira:

### 13. koadroa

**Irakasleen Prestakuntza Jarduerak. 2004-2005 ikasturtea**

<b>Orotariko Irakasleak</b>			
<b>Modalitatea</b>	<b>Titulua</b>	<b>Orduak</b>	<b>ILZak</b>
<b>Ikaskuntzei zentzua ematen dieten proiektuak</b>			
Mintegiak:	Proiektuen araberako programazioa	35	ILZ guztiak
	Poesia eta IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) proiektu bat.	40	ILZ guztiak
	KID PIX programarekin lagundutako proiektua	35	Iruña
Moduluak:	Loris Malaguzzik proposatzen duen eskola irekia	10	ILZ guztiak
	Ezagutzeko eta ulertzeko erronka. Ingurunearen ezagutzara hurbiltzea.	12	ILZ guztiak
Jardunaldiak:	Haur Hezkuntzako II. Jardunaldiak.	Zehaztu gabe	Iruña
<b>Hizkuntza gaitasunen garapena</b>			
Mintegiak:	Egunkaria eskolan. Elkarrekin ikaskuntza-iturri gisa.	35	Iruña, Tafalla eta Lizarra
	Lengoiaren programazioa bultzatzeko aplikazio informatikoak.	35	Iruña
Moduluak:	Korreo bat bidaltzen dizut...	15	ILZ guztiak
	Lengoaia eta askoz ere gehiago egunkariko testuekin	12	Lekaroz eta Tuteran
	Gaztelania, euskara eta ingelesa Haur Hezkuntzan integratzeko proiektu txikia.	15	ILZ guztiak
Ikastaroak:	Ingelesaren irakaskuntza haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.	35	Iruña
	MALTED: Multimedia authoring for language tutor and educational development	60	On-line ikastaroa
	Drama techniques in the English language classroom	10	Iruña
	Developing Reading Skills in Primary	10	Iruña eta Tuteran
	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasgelarentzako ingeles-irakaskuntzaren proiektuari jarraipena egitea.	20	Iruña
Elkarriketa-taldeak eta lantegiak	Nola hobetu hitz-jarioa, ahoskera eta entonazioa: ingeleseko eta frantseseko elkarriketa-taldeak.	35	Iruña, Tuteran eta Tafalla
	Ingeleseko eta frantseseko lantegiak.	Zehaztu gabe	ILZ guztiak
<b>Matematiken alorra</b>			
Mintegiak:	Matematika ikastea - 2	35	Tafalla
	Giro matematikoak sortzea eta buruketak ebatzea.	35	Iruña, Lizarra, Lekaroz eta Tuteran
Moduluak:	Material didaktikoak eta matematiken programazioari laguntzeko aplikazio informatikoak.	15	Iruña, Tafalla eta Lizarra

Modalitatea	Titulua	Orduak	ILZak
<b>Haur Hezkuntzako programa: alor artistikoa</b>			
Moduluak	Inguruko artea ezagutzeko proiektu bat	15	ILZ guztiak
	Pintura tailerra Haur Hezkuntzako haurrekin	12	ILZ guztiak
	Musika entzuten ikastea	12	Tafalla eta Lizarra
	Erlaxaziorako teknika psikofisikoak Haur Hezkuntzarako	20	ILZ guztiak
	Dramatizazioa Haur Hezkuntzako haurrekin	12	ILZ guztiak
Ikastaroak	Musika programazioa Haur Hezkuntzan	20	Tutera, Lekaroz, Iruña
<b>Gizarte garapen indibiduala</b>			
Mintegiak	Garapen emozionalerako estrategia didaktikoak	35	Iruña eta Tafalla
	P.N.L. (Programazio Neuro Linguistikoa) Haur Hezkuntzari aplikatuta	25	Tutera, Tafalla, Lekaroz, Iruña eta Lizarra
Moduluak	Hezkuntzako psikomotrizitatea	12	ILZ guztiak
Ikastaroak	Taldeetako dinamika eta taldean lan egiteko estrategiak	12	ILZ guztiak
	TV: Begiratu, ikusi eta eman iritzia	12	Lekaroz, Lizarra, Tutera eta Iruña

Iturria: Irakasleen Prestakuntzarako Plana, 2004-05 ikasturtea.

### 3.5.2.2. Lehen Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

Eskola, egungo munduan txertatuta, ez dago gizartean ematen ari diren aldaketa handietatik kanpo. Biztanleriaren maila kultural handiagoak, migrazio fenomenoak, zientzian ematen diren aurrerapenak eta teknologia berrien presentzia geroz eta handiagoak profesionalen esku-hartze geroz eta konplexuagoa eskatzen dute.

Irakasleen prestakuntza jarraituak ere badu eragina fenomeno horietan eta, ondorioz, Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzentzen zaien prestakuntza proposamen horrek hezkuntzaren xede nagusiei nahi die heldu, eta baita ere erronka sozial berriei erantzun. Horregatik, Prestakuntza Planak lau eremu zabal hartzen ditu:

1. Idatzizko eta ahozko komunikazio-gaitasunak garatzera, arrazonamendu matematikoa lantzerako, kultura zientifikoko oinarriak ezartzera eta adierazpen eta ulermen plastikoa jorrazterako orientatzen diren jarduerak.
2. Hezkuntzaren alderdi sozioemozionalekin zerikusia duten jarduerak, eta ikasleen aniztasunari kalitatezko erantzuna emateko ahalbidetzen duten ikaskuntza-estrategiak lantzeko jarduerak.
3. Curriculumeko zenbait alderdi lantzerako aplikatutako Teknologia Berriak.
4. Ikastaro gehienak ondoren teoriarik sakontzea eta ikasgelan proposamenak diseinatzea ahalbidetuko duen oinarri zientifiko-didaktiko bat ezartzeko xedez sortu dira.

Lehen Hezkuntzako irakasleen esku jarri dira urratseko curriculumeko marko orokorraren barruan gai eta modalitate jakinengatik interesak eta lehentasunak erakutsi dituzten irakasle horien iradokizunei erantzuteko xede duten prestakuntza jarduerak. Gainera, aurreko ikasturtean abiarazi ziren prestakuntza-prozesuei jarraipena emango dieten jarduerak antolatu dira. Prozesu horiek taldeko lana eta irakasleen artean informazioa trukatzeko sustatu dute.

Jarduera horiek ondorengo taula honetan biltzen dira:

## 14. koadroa

### Lehen Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Jarduerak. 2004-2005 ikasturtea

#### Orotariko irakasleak

Modalitateak	Titulua	Orduak	ILZ	
Mintegiak	Hezkuntza emozionala	40	Iruña	
	Garapen emozionalerako estrategia didaktikoak	35	Tafalla	
	Ikasgelatako ikaskuntza erritmo desberdinetara egokitzeko estrategiak	40	Tafalla	
	Ikaskuntza kooperatiboa: aniztasunaren inguruko hezkuntzara hurbiltzea	40	Iruña	
	Zientzien ikaskuntza Lehen Hezkuntzan	40	Iruña	
	Lan-proiektuak prestatzea Zientzien alorrean	40	Tafalla	
	Ikastetxeak eta beren inguruko ondare artistikora hurbiltzea	35	Iruña, Lizarrako ILZra irekita	
	Nafarroako paisaiak: Clic 3.0 programarekin jarduerak sortzea	35	Iruña	
	Egunkaria eskolan. Elkarrekintza ikaskuntzarako iturri gisa	35	Lizarra eta Iruña	
	Eskolan testuekin lan egitea	40	Tafalla eta Tütera	
	Irakurtzen irakastea, ulertzen irakastea	40	Iruña	
	Matematikak ikastea buruketak ebazteko	Urtarniletik ekainera Urritik ekainera	Lizarra, Iruña	
	Matematikak ikastea buruketak ebazteko. Sakontzea.	35	Iruña	
	Kalkulua ikasgelan: hori errazteko tresnak	40	Lekaroz, Tafalla eta Tütera	
	Irakurtzen hasteko modu bat, estrategia esanguratsuen bidez	25	Iruña	
	Ikasgelako programazioa ebaluazioaren ikuspegitik	35	Iruña eta Tütera	
	Plastika Lehen Hezkuntzan	35	Iruña eta Tafalla	
	Ahozko generoak irakasteko proposamenak	35	Iruña	
	Moduluak	Irakun-ulermena lantzeko estrategiak	35	Iruña eta Tütera
		Idazketa tailerra	35	Iruña
Zentzuz kalkulatzeko irakasten dugu		35	Iruña	
Komunikaziorako eta gatazkak ebazteko gaitasunak		14	Tütera eta Lizarra	
Auto-estimua eta estresaren kontrola		14	Tütera	
Mapa kontzeptualak: ikasleen ikaskuntza esanguratsurako tresna erabilgarri bat		14	Iruña	
Informatikaren erabilera Lehen Hezkuntzako alorrean		14	Lizarra, Lekaroz, Iruña eta Tütera	
Esperimentuak eta jarduerak praktikoak		14	Lizarra, Lekaroz eta Iruña	
Zientzien ikaskuntza				
Hezkuntza Plastikoa		15	Lekaroz eta Tütera	
Atseginez irakurtzea: haurrentzat eta gazteentzat argitaratutako liburua		14	Lekaroz, Iruña, Tafalla eta Tütera	
Ipuinak kontatzeko artea		14	Iruña	
Buruketak ebaztea: matematikaren erronka bat		20	Tütera	
Geometria Lehen Hezkuntzan	20	Tafalla		
Kultura desberdinen ezagutza. Ikasle etorkinei harrera egiteko estrategiak eta prozedurak	8-12	Zehaztu gabe		

Modalitateak	Titulua	Orduak	ILZ
Ikastaroak	Taldeko dinamika eta taldean lan egiteko estrategiak	12	Lizarra, Lekaroz eta Tafalla
	Teknologia Berrien erabilera Gizarte Zientzien irakaskuntzan	12	Lizarra, Iruña eta Tuteria
	Bolumena Hezkuntza Plastikoan	20	Lekaroz, Iruña, Tafalla eta Tuteria
	Irakurleen kluba. 2004-2005 edizioa.	35	Lizarra eta Iruña
	Testuinguru kultur anitzetan ikastea eta irakastea: ikaskuntza-erki-degoak	18	Iruña
Jardunaldiak	Ikasgelan irakurketari eta idazketari dago-kienez izandako esperientziak aurkeztea.	12	Tuteria
	Ikasgelan izandako esperientziei buruzko jardunaldiak	10	Iruña
	Gutxiengoan eta ikasle atzerritarren irakasleak prestatzeko jardunaldiak.	20	Iruña
	Kirolaren hezkuntza-balioekiko sentsibilizatzeko jardunaldiak.	9	Iruña, beste ILZetara irekita
Informazio-saioak	Chipi-Txapa bildumako I. alearen aurkezpena. Nafarroa ezagutzea. Nafarroako geografia (multimedia materiala).	4	ILZ guztiak
<b>Heziketa Fisikoan espezializatutako irakasleak</b>			
Ikastaroak	Mugimendu-portaeren pedagogia	8	Iruña, besteetara irekita
	Gure lurraldeko dantzen inguruko hastapenak Heziketa Fisikoan	12	Iruña, besteetara irekita
	Malgutasuna lantzeko alternatibak	12	Iruña, besteetara irekita
	Dantza tradizioaletan sakontzea	12	Lekaroz
	Landa inguruneko jarduerak: orientazioa eta eskalada Heziketa Fisikoan	16	Tuteria
	Eskualde-dantzak Heziketa Fisikoan	12	Lizarra, Tafallara irekita
Jardunaldiak	Kirolaren hezkuntza-balioekiko sentsibilizatzeko jardunaldiak	9	Iruña besteetara irekita
<b>Musikan espezializatutako irakasleak</b>			
Mintegiak	Musikoterapia adierazpenerako eta komunikaziorako bitarteko gisa giza garapenean	22	Iruña, besteetara irekita
Ikastaroak	Munduko perkusioaren inguruko hastapenak	16	Iruña, besteetara irekita
	Aretoko dantzak: Musikako ikasgelan lan egiteko tresna bat	16	Iruña, besteetara irekita
	Ahots abestuaeren teknika hurbiltzea. Tresna pedagogiko bat.	24	Iruña, besteetara irekita
	Finale programa on-line: II (sakontzea)	35	Iruña, besteetara irekita
	Finale programa on-line: I	35	Iruña, besteetara irekita
	Band-in-a-box delakoaren aplikazio praktikokoak eta ballabide didaktikoak.	22	Iruña, besteetara irekita
<b>Atzerriko Hizkuntzetan espezializatutako irakasleak</b>			
Ikastaroak	Ingelesaren irakaskuntza haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan	35	Iruña
	MALTED: Multimedia authoring for language tutor and educational development	60	On-line ikastaroa
	Drama techniques in the English language classroom	10	Iruña
	Erreferentziak marko komun europarra eta hizkuntzen portfolia.	10	Iruña
	Ingelesaren ahoskera irakasteko fonetika	13	Tuteria
	Developing Reading Skills in Primary	10	Iruña eta Tuteria
	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasgelatan ingelesa irakasteko proiektuari jarraipena egitea	20	Iruña
	Irakurketa eta idazketa, fonetika eta liburutegia	26	Ei Sario eraikina
